




HAU EZ DA GURE BAKEA

EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EMAKUME
PRESO POLITIKOEN INGURUKO IRAKURKETA
FEMINISTAK



EM
AG
IN

DOKUMENTAZIO ETA IKERKUNTZA ZENTRO FEMINISTA



euskal herriko
bilgune feminista

Euskal Herrian, 2017ko urtarrilean



euskal herriko
bilgune feminista

LIBRE EZIN, ASKE GARA



ASKE

Setiatutako guda zelaiak
armazoizko gorputzak gara
tatuaje bat zuen kopetean

kulero bat zuen aurpegian
begirada apurtezin bat gara
• biluzik soz kausalitate gordinari

Azpiratu ezinezko errebeldeak
esaldi ezabaezin bat gara
hitz trabatu bat zuen eztarran

euskaldun eta preso
mila bizipen zein aurpegi gara
barruazalak josiz iraultzari

zauri bakoitza
miazten dugu

libre ezin
aske gara.

Ekhi Eizagirre Zubiaurre

aurkibidea

SARRERA 6

1.- GATAZKA ETA GATAZKAK FEMINISMOTIK AZTERGAI 8

ESKOLA FEMINISTEN LABURPENA ETA ONDORIOAK

Emagin elkarteak 2016an Iruñean eta Bilbon antolatutako Eskola Feministen txostena 9

BAKEAREN ETA ELKARBIZITZAREN INGURUAN ELKARREKIN
EGINDAKO GOGOETAREN ONDORIO BATZUK

EMAGUNE, 2016 20

2.- EMAKUMEAK ETA ESPETXEA 24

EUSKAL EMAKUME PRESO POLITIKOEN EGOERAREN INGURUKO
ANALISI FEMINISTA BAT

Euskal Herriko Bilgune Feministak Sarerekin batera egindako txostenean oinarritutako
lana eta preso ohien hausnarketak barnebiltzen dituena 25

HEMEN GAUDE

“Kalera, kalera” ekimenaren baitan emakume preso ohiek kaleratutako manifestua 37

SARRERA

Euskal Herriko Bilgune Feministak 15 urte betetzen ditu 2017an. Urteurrena ospatzearekin batera, Euskal Herriaren burujabetza feministarantz eramango gaituen bidean sakontzeko eta aurrerapausoak emateko baliatuko dugu urtea. EHBFren proiektu politikoan ditugun ildo eta erronka ezberdinei helduko diegu egingo ditugun ekimen anitzekin.

Ildo horietako bat da gatazka politiko armatuaren konponbidean – hau da, memoria, justizia eta erreparazioa- feminismotik eragitea. Izan ere, euskal gatazka politiko-armatuaz ezagutzen dugun irakurketa partziala eta androzentrikoa izan da eta ezinbestekoa da memoria, justizia eta erreparazio integrala lortzeko historiaren eta gertatu denaren gaineko irakurketa feminista egitea. Nola eragin du gatazka politiko-armatuak emakumeon bizitzetan? Zein da jokatu dugun papera? Nola tratatu gaituzte? Zein da gatazkaren erresoluzioan eta bakearen eraikuntzan egin nahi dugun ekarpena?

Galdera horien inguruan hausnartu genuen Emagin Elkarteak 2016an Iruñean eta Bilbon antolatutako Eskola Feministetan. Dossier honen lehenengo ataleanbertan entzundako hitz-hartzeen laburpena eta ondorengo ariketa kolektibo eta parte hartzailetatik atera genituen ondorioak topatuko dituzue. Gure kontakizuna eraikitzen jarraitzeko harri sendoa jarri genuen bertan.

Bestalde, bake eta normalizazio prozesu batean gaudela dioten bitartean, indarkeria matxistak ez du etenik. Gatazka politiko bakarra al dago herri honetan? Erailketa guztiek pisu berdina dute? Hau al da gure bakea? Indarkerien arteko hierarkizazioz hausnartzeko aukera izan genuen ere Eskola Feministetan. Horren inguruan, bereziki aberasgarria izan da Emagunetik Euskal Herriko esparru ezberdinetako emakumeek osatu duten dokumentua, dossier honetako bigarren testua horixe litzateke, alegia. Aldi berean, Euskal Herriko Bilgune Feministatik “Hau ez da gure bakea” leloa erabili genuen 2016ko ikasturtean zehar emakumeek eta gorputz ez normatibook bakean bizi ez garela salatzeke.

Horrez gain, 2017an, gatazka politiko-armatuaren ondorioetako batean zentratzea erabaki dugu: emakume presoak eta kartzela, hain zuen ere. 15. urteurrenaren baitan, emakumeon espetxe martxa feminista antolatu dugu. Valladolideko espetxera goazen arren, ekimenaren helburu nagusia emakume preso politiko guztiei gure elkartasuna helaraztea eta aliantzak estutzea da, eta aldi berean, dispertsio politika salatzea eta euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea exijitzea. Honekin batera, gaia ikuspegi feminista batetik landu nahi dugu: emakume presoek bizi dituzten zapalkuntza anitzak salatu eta espetxeen izaera

patriarkala jo puntuan jarri; espetxeratzeak suposatzen dituen zaintza lanak, nagusiki emakumeon bizkar gainean egon direnak eta daudenak aitortu; eta zigor-sistemaren inguruko gogoeta feminista bultzatzea.

Eduki horietan sakontzeko kaleratu ditugun bideo-pilulez gain ¹, dossier honetako hirugarren testua irakurri dezakezue. Bertan, euskal emakume preso politikoen egoeraren inguruko analisi feminista bat osatu dugu ikerketa ezberdinetan eta preso ohien bizipenetan oinarritua.

Amaitzeko, aipagarria da, azkenaldian, emakume preso ohiek egiten ari diren lana. Poliki-poliki badoaz beraien arteko sarea josten, bizipenak beraien artean eta mugimendu feministarekin konpartitzen, subjektu kolektibo moduan sendotzen eta beraien ahotsetatik ekarpen feministak egiten. Euskal Herriko Bilgune Feministatik txalotu nahi dugu “Kalera, Kalera” ekimenean aurkeztu zuten indarrez beteriko manifestu gordina eta ausarta. Bagoaz kontakizun ezberdinak azaleratzen. Orain, horiek aitortzeko eta kontutan hartzeko garaia da. Gatazka politiko armatuaren irakurketa feministak osatzeko zereginari ekarpen garrantzitsu egin diotela uste dugunez, osorik irakurgai daukazue dossier honen laugarren atalean

Lau testu horiek aukeratu eta bildu ditugu modu batean edo bestean, gu sustatzaile edo parte izan garen prozesuen ondorio direlako. Baina ez genuke sarreratxo hau amaitu nahi, egun, kaleratzen ari diren beste ekarpen asko kanpoan utzi ditugula aipatu gabe. Aberasgarria eta beharrezkoa da toki ezberdinetatik eta gatazken inguruko eta gatazka politiko-armatuaren ondorioen eta konponbidearen inguruko irakurketa feministak egitea. Bide luzea dugu oraindik elkarrekin egiteko, eztabaidatzeko, elkarbanatzeko eta eraikitzeko. Baina honek ez du atzera bueltarik.

1



http://bilgunefeminista.eus/eu/Euskarriak/Emakumea_kartzelan_-_Preso_ohiak



http://bilgunefeminista.eus/eu/Euskarriak/Emakumea_kartzelan_-_Adituak



http://bilgunefeminista.eus/eu/Euskarriak/Emakumea_kartzelan_-_Senedeak

GATAZKA ETA GATAZKAK

FEMINISMOTIK AZTERGAI

**1 ESKOLA
FEMINISTEN
LABURPENA
ETA ONDORIOAK**
(Emagin elkarteak 2016an
Iruñean eta Bilbon antolatutako
Eskola Feministen txostena)

**2 BAKEAREN
ETA ELKARBIZITZAREN
INGURUAN
ELKARREKIN EGINDAKO
GOGOETAREN
ONDORIO BATZUK**
(Emagune, 2016)

ESKOLA FEMINISTEN LABURPENA ETA ONDORIOAK

Esku artean duzun txostenak Emaginek 2016an Bilbon eta Iruñean antolatutako Eskola Feministetan landu eta eztabaidatutakoa jasotzeko helburua dauka. Emagin 2003. urtean Euskal Herriko Bilgune Feministaren (EHBF) eskutik sortutako formakuntza, ikerketa eta dokumentaziorako elkarte bat da eta urtero Eskola Feministak antolatzeko apustua egiten du.

Zer da Eskola Feminista?

Emagin eta EHBFri egunerokotasunean sortzen zaizkigun formazio beharrak eta Mugimendu Feministan nahiz jendartean mahai gainean dauden gaiak kontuan hartzen dituzten ikastaro irekiak dira. Ponentzien entzuketa hutsera mugatzen diren jardunaldien aurrean, eskola izaera lortu nahi dugu, partaideen inplikazioa bilatuz, metodologia parte hartzaileak burutuz, eztabaidarako espazioak eskainiz, etab. Aditu- aritu dikotomia gainditu nahi dugu, guztion ibilbideak, bizipenak eta hausnarketak balioan jarriz elkarrekin jakintza kolektiboa eraikitzen joateko.

Zergatik gatazka politikoaren irakurketa feministak?

Euskal Herriko burujabetza feministaren bidean aurrerapausoak emateko, ezinbestekoa ikusi dugu gatazka armatu zein politikoaren gaiari heltzea. 5 urte pasatu dira ETak su etena iragarri zuenetik, eta gatazka armatuaren erresoluzioan blokeo sentsazioa dagoen arren, hausnarketa eta eztabaidarako aukerak eskaintzen dituen testuinguru bat ere bada. Nola eragin du gatazka politiko-armatuak emakumeon bizitzetan? Zein da jokatu dugun papera? Nola tratatu gaituzte? Zein da gatazkaren erresoluzioan eta bakearen eraikuntzan egin nahi dugun ekarpena?

Azken urteetan, EHBFtik euskal gatazka politiko-armatuaz ezagutzen dugun irakurketa partziala eta androzentrikoa izan dela salatzen saiatu gabe. Berriz ere, historia honen protagonista bakarrak gizonak izan direla dirudi, besteak beste, gizonak egin dutelako gertatutakoaren kontaketa. Maskulinitate hegemonikoan oinarritutako militantzia eredu bat hauspotu da eta gudari gizon heterosexualaren iruditegia elikatu. Genero sistemaren rol banaketak oso modu argi batean erreproduzitu izan ditugu. Egoera honen aurrean, emakumeok bide ezberdinak aukeratu ditugu eta honek eragin ezberdinak izan ditu gudan eta gatazkaren beraren garapenean. Baloratuak izan diren eta izan ez diren rol, jarrera, borroka molde eta pertsonak banatu izan ditu. Adibidez, emakumeok gehien bat zaintza eta babes lanak egin izan ditugu, gatazkaren beraren eta bere ondorioen sostengu izan gara (bereziki presoan aferan) eta inork ez ditu lan hauek bisibilizatu edo ez zaie dagokien aitortza eman.

Izan Estatu, komunikabide edo klase politikoaren aldetik, nahiz eragile sozial, Ezker Abertzale edo Mugimendu Feministaren aldetik, hutsune handia egon da gatazka politiko- armatuaren gaineko irakurketa feminista(k) burutzeko, han eta hemen saiakera ezberdinak egin diren arren. Ze ondorio izan ditu emakume izateak tortura kasuetan edo kartzela bizitzeko orduan? Nola irudikatu gaituzte komunikabideetan? Zer nolako parte hartzea izan dugu gatazkan eta haren konponbidean eta zergatik? Nola erabili izan du Estatuak “emakume identitatea” gatazka honetan eragiteko?

Korapilo eta galdera hauetatik abiatuta, azkenaldian egindako hausnarketa batzuk sozializatu eta zabaldu nahi izan ditugu. Bereziki, 2015eko udan burutu ziren UEUko EHko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministaren bidean ikastaroan konpartitu ziren ideia eta bizipen esanguratsuei tiraka. 2016ko udan ere, aurreko ikastaroan hizlari bezala parte hartu zuten bi kidek Kartzela eta euskal gatazka birpentsatzen. Subjektu feminista baten norabidean ikastaroa antolatu zuten. Aurrekoan hasitako bideari jarraitu eta beste hainbat bide zabaldu zituzten.

Baina galdera hauek beste korapilo batzuetara eramán gaituzte. Izan ere, mugimendu feministan indarkeria matxistei aurre egiteko molde ezberdinak erabiltzen hasi gara eta indarkeriaren erabilpenaren inguruko eztabaida piztu da. Gatazka eta indarkeria batzuen intentsitatea jaistean, jendarte hau sostengatzen duten beste indarkeria batzuk ikusgarritasun gehiago lortu dute. Horregatik galdetzen dugu, hau al da gure bakea? Gatazka politiko bakarra al dago herri honetan? Guk ezetz diogu eta horregatik 2016ko ikasturtean zehar “Hau ez da gure bakea” leloa erabili izan dugu egun ezberdinetako lanketan. Izan ere, egun bake eta normalizazio prozesu batean gaudela

esaten duten arren, emakumeok eta gorputz ez normatibook ez gara inolaz ere bakean bizi. Indarkeria matxista normalizat duen bake edo normalizazio egoera honetan, guretzako ez dago bakerik.

Eztabaidarako gako hauek guztiak mahai gainean egonda, beharrezkoa ikusi genuen feministon artean gai hauei buruz konfiantzazko giro batean hitz egiteko espazioak sortzea, eta bereziki emakume aliatuekin batera egitea.

Zertarako txosten hau?

Bertan egon ez ziren emakumeekin ere konpartitu nahi ditugu gonbidatuen hitz-hartzeak eta ariketa kolektiboetan ateratako hausnarketak, eztabaidak, bizipenak eta kezkek. Bestalde, iraganeko eta egungo korapiloak identifikatzeaz gain, aurrera begirako erronkak eta lehentasunak zerrendatu genituen. Ezinbestekoa da horiei heltzeko apustu kolektiboa egitea. Feministok, bide ezberdinetatik bada ere, norabide berdinerantz tira egiteko. Herri honetako feminista guztion ardura politikoa dela uste dugulako.

NONDIK GATOZ?

Eskola feminista hauek ez dira ezerezetik sortzen, aldez aurretik gatazkez eta bakeaz analisi feministak egin dira bai nazioartean zein Euskal Herrian ere. Jarraian, guretzako garrantzitsuak diren gertaera, ekimen eta hausnarketa batzuen denbora lerroa aurkeztuko dizuegu, nondik gatozen ikusteak berebiziko garrantzia duela uste baitugu. Hemendik edan eta ur berriak sortzen jarrai dezagun.

- 2001ean Emakume Abertzaleen I. Topaketak burutzen dira Leitzan. Bertan, sexu-genero aldagaiak beste edozein gatazka zeharkatzen duela azpimarratu zen.

- 2002an EHBF sortu zen eta bere oinarrietan gatazka politiko-armatuaren konponbidean ikuspegi feminista txertatzeko lanak kokatu zituen.¹

- 2004an Nazio Garapen Biltzarra sortu zen (Euskal Herriaren etorkizuna eraikitzeko herri estrategia sortu nahi zuen bilgunea). Lehen aldiz aurretik aipatutako baieztapena kokatu zen.

o Landutako ildo nagusien artean, gatazkaren konponbidea zegoen eta aldez aurretik egindako diagnostiko batek Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoa sortzera eraman gintuen. Eragile ugari sinatutako hitzarmen honetan, parte hartzearen gaian parekidetasuna eta sexu-genero zapalkuntzaren aitortza sartu zen.²

- 2005ean Emakume Abertzaleon III. Topaketa Feministak egin ziren Euskalduna jauregian gatazka politiko-armatuaren gaia lantzeko. Honako ideiak azpimarratu ziren bertan:

o Emakumeen eta feministon parte hartzea sustatzeko neurriak hartu eta bultzatu behar ditugu.

o Mugimendu Feministaren aitortza behar du gatazkaren konponbiderako prozesu batek (honen ekarpenak eta eztabaidak aintzak hartu behar dira).

o Sexu-genero zapalkuntza aldagai bezala kokatu behar da analisi orotan.

¹ [http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2015/04/1428162130-proposamenorokorra\(1\).pdf](http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2015/04/1428162130-proposamenorokorra(1).pdf)

² https://eu.wikipedia.org/wiki/Oinarrizko_Hitzarmen_Demokratikoa

- 2006an Ahotsak egitasmoa sortu zen (alderdietako eta gizarte eragileetako emakume ugari elkartu zituen). Hiru premisa azpimarratu ditzakegu:
 - o Edozein proiektu politikok garatzeko aukera izan beharko luke
 - o Erabakitze eskubidea
 - o Bakearen kontzeptualizazio berria behar dugu

2008 arte egon zen lanean. Bereziki azpimarragarritzat jotzen dugu Euskalduna jauregian Mugimendu Feministak egitasmoarekin bat egin zuenean egindako irakurketa eta ekitaldia.³

- 2010ean ETA erakundeak su etena iragarri zuen eta bide berri baterako urrats ezberdinak sortu ziren:
 - o Gernikako akordioa (2010-2013)
 - o Foro sozialak. Aieteko konferentzian (2011) ostiralean nazioarteko ikuskatzaileekin elkartu ginen eragile sozialetako kideok eta bertan geunden feministok azpimarratu genuen, parte hartze parekiderako neurriak jartzeaz gain, jendartearen ekarpena jasotzea ezinbestekoa zela.
- 2012an EHBFK eta Herrira mugimenduak “Emakumea eta kartzela” mahai- ingurua antolatu genuen Bilbon. Lehen aldietako bat izango da emakumez osaturiko mahai batek espetxean bizitakoa aztertzen duela. Gerora hainbat herritan zabaltzen joango den hitzaldi eredua izango da.⁴
- 2013an Emagune sortu zen. Bi-hiru urteko ibilbidea eta gero publiko egin dugu 2016ko irailean gune honetan egindako lanketa. Gatazken ikuspegi anitzak plazaratzeaz gain, irakurketa feminista baten beharra azpimarratu dugu besteak beste.⁵

ESKOLAK PARTZIALEAN

Hurrengo atala, eskoletan atera ziren ideia ezberdinen laburpen bat da. Argi utzi nahi dugu ondoko ekarpenak gogoeta elikatzeko gonbidapenak direla. Alegia, pertsona partikularren ikuspuntu eta iradokizunak edota mahai-inguruetako hitz-hartze eta ikerketa batzuk hizpide hartu ditugu osatzeko dugun gogoeta elikatzeko. Lapiko bat ireki nahi izan genuen gonbidatu eta bitarteko ezberdinen bidez, eta hortik ateratako ideia nagusiak edo gako esanguratsuenak bildu nahi izan ditugu atal honetan, eskolan zehar egondako ekarpen mota ezberdinetatik guk identifikatu eta bildu ditugun gakoak, hain zuzen ere.

Lehenengo bi azpiataletan, mahai-inguruetako hitz-hartzeen ideia nagusiak bildu ditugu eta hirugarren azpiatalean, ariketa kolektiboetatik ateratako gakoak.

1. BIOLENTZIA ETA BAKEAREN PROBLEMATIZAZIOA

Lehenengo mahai-inguruan Jule Goikoetxeak Bakea ez da existitzen, feminismoa bai ponentzia aurkeztu zuen, eta Zuriñe Rodriguezek, Euskal gatazka ezaugarritzen. Feminismotik irakurketak deiturikoa. Jarraian dituzue bertan aipatutako ideia nagusiak.

³ <http://www.redfeminista.org/pnoticia.asp?id=4854>

⁴ <https://www.youtube.com/watch?v=BnI3ZxBsors>

⁵ <http://www.ehu.eus/eu/web/ehugune/emagune>

Jule Goikoetxea

Emakume izateagatik egunero akabatu edo bortxatzen gaituztela eta hori guztiz “normala” dela, hau da, demokrazian norma bat dela, salatu zuen Goikoetxeak. Modu berean, emakumezkoak belaunaldiz belaunaldi eta sistematikoki periferian kokatzea demokraziaren funtzionamendu normalaren parte dela adierazi zuen. Kanporaketa sistematiko honi “Bakea deitzen diote eta egunero musu-truk lan egitea edo gizonen erdia kobratzea zein gizonen subalternoak izatea gure herrian ez da gatazka politikoa” baieztatu zuen. “Honetarako, ez dago nazioarteko batzorderik, gizonen desarmatze prozesurik, ez dago Eusko Jaurlaritzan Batzorde loteslerik: ez dago gatazkarik”.

Beraz, “Gatazka” gizonak gizonak akabatu eta bortxatzen dituztenean bakarrik gertatzen dela eta “Bakea” gizonak beren artean akordio bat lortzen dutenean gertatzen dela ondorioztatu zuen.

Goikoetxearen iritziz, botere publikoa geureganatzen ez badugu, bakea ez da geurea izango, hau da, norma eta normalitatea ez dira geureak izango, gizonenak baizik. Horrek ez du esan nahi gizonak biolentzia pairatu eta gatazka bizi ez dutenik. Ezberdintasuna da beraiek biolentzia eta gatazka gobernatzen dutela. Horregatik, Euskal Estatuagintza Feminista baten ikuspuntutik gakoa ez da estatua nola deuseztatu, nola erdietsi baizik.

Amaitzeko, eta bere hitz-hartzearen izenburura bueltatuz, bakearen kontzeptua biolentzia guztiak sistematikoki ezkutatzeko asmatu zela adierazi zuen eta feminismoa, aldiz, biolentzia horiek guztiak eraldatzeko asmatu zela: “Horregatik bakea ez da existitzen eta feminismoa bai”.

Zuriñe Rodríguez

“Zein puntura arte problematizatu dugu bakea herri honetan?” galderari erantzunez, bakea ailegatuko den ideologian hezi garela esan zuen, izaera neutroz eta unibertsalaz josiz. Eta heziketa prozesu horretan bakearen desioa sortu dugula salatu zuen, baina bake hori patriarkala dela azpimarratuz. Bere iritziz, aldiz, hamarkadak daramatzagu biolentziaren problematizazioa egiten. Baina biolentzia patriarkalak gatazka politiko-armatuarekin duen zerikusia zein den jakin behar dugu orain. Adibidez: EHko gatazka armatuak emakume identitatea indartu al du? Edo gizon vs emakume rola indartu ditu? Gatazka armatuak heterosexualitatearen beharra izan du? Zein behar material, emozional, pertsonal behar dira? Beste modu batez esanda, zein da zaintzaren espazioa gatazkan? Eta nork zaintzen du nor?

Emakumeak espazio pribatura bidaltzea izan da erabili izan den dispositibo biolentoetako bat. Emakume asko etxean geratu izan dira espazio publikoan zeuden horiek (gizon militante heterosexualak gehien bat) zaintzen eta maitatzen. Zaintza inkondizionalaren ideologia indartu dugula salatu zuen. Zaintza eta amatasunaren errekonozimendua ere egon da, baina errekonozimendu publikoa izateak ez du inolaz esan nahi espazio publikoaren konkista, ezta izaera politikoa eman zaionik ere. Espazio publikoan publikotasunerako, eztabaidarako eta borrokarako heziak izan diren gorputzak egon dira batez ere. Eta nortzuk dira horiek? Gizon militante heterosexualak.


Rodriguezen ustez, badira emakume baketsu eta normal horren irudiaz aldenitu eta, publikotasunean aktibo egon diren emakume militanteak. Baina norma apurtzeagatik, euren gorputzean anormalitatearen dispositibo biolento guztiak pairatzen dituztela uste du. Bere hitzetan, “sumisiotik ateratzeak zigorra ekartzen du: oztopo gehiago aurkitzen dituzte parte hartzerako, besteen (batez ere militante publiko heterosexual horien) kuestionamendu konstantea”.

2. KARTZELEN ANALISIA HAINBAT IKUSPEGITATIK

Bigarren mahai-ingurua Pertsonala politikoa da. Gatazkak generoa dauka? izenburupean antolatu genuen. Iruñean Miren Zabaleta, Iker Moreno eta Oihana Etxebarrieta egon ziren, eta Bilbon, Etxebarrietaz gain, Irati Tobarrek eta Oihana Barriosek ere hitz egin zuten. Jarraian, bakoitzak aipatutako gako nagusiak azpimarratzen ahaleginduko gara.

Miren Zabaleta

Zabaletaren uztez emakumeek, askatasun galera ez ezik, etengabeko epaiketa morala jasan behar dute kartzelaratzen dituztenean eta hori irudikatzeko adibide bat aipatu zuen. Ama zarenean, epaiketa morala egiten dizute: “Nola da posible, zu ama izanik, horrelako nahaspilatan ibiltzea?”. Zigor bikoitza, euskal presoak izateagatik, eta beste bat, emakume izate hutsagatik. Kasurik okerrera, horretaz gainera, gaixo dagoenaren egoera litzateke.



Borobilduta ageri dena da Emakumeen Zuloa

Sei urtez egon zen espetxean, eta haietako bost Valladoliden eman zituen (Espainia). Han, zazpi modulu daude gizonentzat, eta “zulo” bat emakumeentzat. Masifikaturik daudela salatu zuen, patio txikian soilik hiru hilabetez ematen duela eguzkiak, eta gela bakarra dutela dena egiteko: otorduak, tailerrak, kirola... Modulutik ateratzeko debekua zuten, inguruan zeuden mutilak “ez aztoratzeko”. Gizonen balizko erantzuna ere, haiei leporatzen zieten. Alegia, emakumeen gorputzak erabili egiten dituztela salatu zuen. Jazarpen moralari dagokionez, adibide ezberdinak jarri zituen. Adibidez, emakume bat zigortu egin zuten korridorean gizon bati musu emategatik, gizona ordea ez. Zigorra, gainera, gizon bati matxinada batengatik ezartzen zaiona baino handiagoa izan zen. Beste adibide bat: gizon transexual bat zegoen Zabaletarekin moduluan. Oraindik tratamendua egiten ari zen eta silikonazko zakila erabiltzen zuen. Kendu egin zioten.

Hori horrela izatearen arrazoia “espetxeek eboluzionatu ez duela” da. Horregatik dira sistemaren ispilurik gardenena Zabaletaren ustez. Hala, arazoa ez da indibiduala, kolektiboa baizik. Presoak berehala etxeratzea ezinbestekotzat jo zuen, eta balizko estatu feminista batean espetxeak apurtzeko beharra azpimarratu.

Iker Moreno

“Kartzela urdinetan izaera arrosa” agertzeko zailtasunak aipatu zituen Morenok. Arte Ederretatik etorrira, munduaren ikuskera kolore bidez azaldu zigun bertaratutakoei. Maskulinitasuna urdinez eta femeninitasuna arrosez irudikatu zituen, eta esan bezala, guztiz urdina den espazio bezala ikusarazi zigun espetxea. Ez bakarrik funtzionarioengatik, baita presoengatik ere. Maskulinitasunaren gordailu den espazio horretan, epaiketa moralaren bidez geldiarazten da kontraktasun oro. Berarentzat, iraultza bat izan zen alderdi erabat urdin batean bere “arrosatasuna” bizitzea, kiroldegian, dantzarako zapatilak janztea, adibidez.

Erronka hau ez zuen soilik espetxean kokatu. Espetxetik kanpo ere, Ezker Abertzaleko militantzia eredu maskulinoa dela nabarmendu zuen, eta gauza bat gogorarazi: gizontasun ereduari buruzko

hausnarketa egiteko dagoela. Sentitu, pentsatu, ekin! leloan, azken bi urratsak eman izan ditugu, baina lehenari, sentitzeari toki eta garrantzi gehiago eman behar zaiola azpimarratu zuen.

Irati Tobar

Espetxe sistema patriarkatuaren arabera eta haren mesedetara antolatua dagoela adierazi zuen, “baina ez da gizartetik isolatuta dagoen eredu bat”. Espetxean, jendartean ematen diren egoera berberak atzeman ditzakegula adierazi zuen, “baina lupaz handituta egongo balira bezala ikusiko genituzke”.

Emakumea espetxean sartzen duten momentutik, bere gorputza eta bere bizitza norma patriarkalen baitan mugitzea da helburua, eta horretarako espetxezainekiko harremanetatik hasita, lan egiteko aukeretaraino, dena egongo da ber-hezte prozesu baten baitan kokatua. Azpimarratzekoa da emakume hauek jasotzen duten zigor bikoitza. Alde batetik, delitugile bezala sartu dituzte espetxera, baina emakume delitugile izateak, haien izaeraren kontra doan heinean jasoko duten zapalketa are nabariagoa izango dela adierazi zuen Tobarrek. Galdera bat geratzen zaigu airean: “emakumeak pobregoak, baztertuagoak... izan arren, zergatik gara oraindik ere espetxe sisteman gutxieneko bat (jakinda espetxeak pertsona pobrez eta baztertuez dagoela osatua)?”

Horretan guztian gehiago sakontzeko, biziki gomendatu zuen Dolores Juliano antropologoaren “Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino” liburua (Gakoa liburuak).

Oihana Etxebarrieta

Guri dagokigunean, euskal nazionalismo klasikoak eta bere garapenak, emakume eta gizonaren estereotipo eta idealizazio konkretu bat bultzatu duela uste du, eta horrek sexu-genero sistemari erantzun diola. Gizon borrokalaria eta emakume zaintzailea (familiarrena, kulturarena...) dira nagusitutako irudiak.

Kulturalki edo politikoki ezarritako rol banaketa horretaz gain, gurea gatazka militar eta politiko batean kokatutako herria izan dela adierazi zuen Etxebarrietak eta horrek, Irantzu Mendia ikerlariak dioenez, gizartearen polarizazioa bultzatzen duela: “Generoen arabiarako rolak indartu egiten dira eta lehen aipatutako rol horiez gain biktima eta biolentziaren eragileen rolak banatzen ditu. Paper hauetatik ateratzeak, rolak gainditzeak, zigorrak eragin dizkie emakumeei, adibidez armak hartzea erabaki dutenei”.

Eta horrek guztiak zein eragin izan du espetxean eta senideen bizipenetan? “Azpimarratu beharreko lehen ideia da espetxe zigorra ez dela soilik presoarentzat”. Familiarentzat suposatzen duen karga emozional, psikologiko eta fisiko guztiaz gain, lan karga bat dakarkio dio egoera honek, haren hitzetan. Eta egoera honetan ere, ez da berdina kanpoan dagoena gizona bada eta ez da berdina barruan dagoena emakumea bada: “Presoaren ongizateagatik dena emateko prest dauden emakume ugariekin egingo dugu topo itxarongeletan, baina aldi berean boteretze prozesu indibidual eta kolektiboak modu kontzientean bizi dituztenaaurkituko ditugu”.

Oihana Barrios

Irati Tobarrek eta Oihana Etxebarrietak hitz egindakoaren analisi psiko-sozial bat egin zuen Barriosek. Urteak daramatza presoan zein haien ingurune gertukoaren arreta psikologikoa lantzen, eta besteak beste, Istanbul protokoloaren aplikazioa landu du torturak pairatu dituzten pertsonen testigantzak frogatzeko tresna bezala.

Espetxeak, gatazkak... buru eta gorputzetan aztarna larriak uzten dituela azpimarratu zuen, eta horien lanketa egitea ezinbestekoa dela ere esan zuen. Urteetan, ondorio psikologiko eta sozialak alde batera geratu izan dira gure jendartean, eta egun arazo handiekin topo egiten ari garela adierazi zuen Barriosek. Urte luzeak espetxean eman dituen pertsona batek, jendarteratzeko beharrak izateaz gain, sozialki, politikoki, berrerrotzeko eta osatzeko behar handia duela adierazi zuen, eta horretan, lanketa psikologikoa lantzen duten profesionalen gain, ingurune sozial eta politikoaren inplikazioa ezinbestekoa dela ere adierazi zuen.

3. KRITIKOKI GOGORATU, MEMORIA FEMINISTA ERAIKITZEKO

Atal honetan, gatazka politiko-armatuaren testuinguruaz egindako gogoetak, jasotako bizipenak eta identifikatutako premiak bilduko ditugu. Begirada hori gatazkaren hiru eragileekiko sakondu zen bereziki, beraz ekarpenak ere hiru eragile horien arabera sailkatu ditugu: Estatua(k)⁶, Ezker Abertzalea eta Mugimendu feminista⁷. Amaitzeko aurrera begira landu beharreko eremu eta gaien inguruko proposamenekin osatutako atala gehitu dugu.

Ariketa honetan gatazkaren memoria feminista osatzeko helburua zegoen heinean, betaurreko feministak jantzi eta egondako hutsuneak identifikatzeko saiakera egin zen. Hurrengo lerroetan aurkituko duzuna hori da, nahiz eta ohartzen garen, memoria feminista eraikitzeo, gatazkan egon diren esku-hartze feministak identifikatu eta hobeto ikustarazteko egitear dugun lanketarekin osatu beharko litzatekeela.

a) **Estatua:** Estatuaren aldetik praktika generizatua izan dela nabarmendu zen. Zehazki, komunikabideen eta klase politikoaren diskurtsoak zein errepresio bitarteko ezberdinak emakumeekiko ezberdinak eta matxistak izan direla. Adibide bi azpimarratzearen:

1-“Emakumearentzat bortxatua izatea markatzea da (txarrena da), eta beraiek tresna hori erabili nahi izan dute”

2- “Sentsibilizazioa lortzeko eta borroka ideologikoa egiteko, emakumearen biktima figura sortu eta esplotatu dute, <X-ren emaztea, X-ren alaba> lastima logika hedatuz”

b) **Ezker Abertzalea:** Hutsune asko nabarmendu ziren eta hiru arlotan sailkatu ditugu:

-Gatazka armatua ez da genero ikuspegitik aztertu ez landu: Komunikabideen, espetxearen eta polizia etxeetako indarkeria sexista landu ez dela aipatu zen. Barne mailan berau ikusteko ere zailtasunak egon direla azpimarratu zen eta lanketa hau ez egiteko errepresio egoera bera aitzakia bezala ipini izan dela. Bigarren mailakotzat jo eta, beraz, biolentzien arteko mailakatzea egin dela agerian uzten du horrek.

Zehazki, torturaren inguruko genero bereizkeria eta tratu sexista kostata onartu dela aipatu zen, baina ez dela behar den beste sakondu eta ez zaiola dagokion dimentsio publikoa eman. Emakume militanteei, alkateetatik hasi eta ETAKo militanteetara, eman zaien tratu sexista propioki ez salatzea ere aipatu zen. Berriki CUPek egindako salaketa politikoa⁸ Euskal Herrian egin ez denaren adibidetzat jo zuten bertan bildutako askok.

Egoera horiek guztiak gatazkaren parametro orokorretan ulertu izan direla esan zen eta ez eraso sexista bezala, emakume izateagatik pairatutako jazarpen gisa, alegia. Gatazka, beraz, subjektu politiko kontsideratu direnak definitu dutela azpimarratu zen, eta emakumeok ez garela subjektu politiko osoak izan, nahiz eta emakume mordoak parte hartu duten gatazkan.

Emakumeok, borrokara sartzeko garaian izan ditugun baldintza ezberdinak, borrokan zehar geure mugimenduetan izan ditugunak (eraso sexistak barne), errepresioaren ezaugarriak (ihesa, zerrenda

⁶ Estatu espainiarrari lotutako aipuak agertu ziren soilik.

⁷ Herri mugimenduez galdegin bazen ere, Mugimendu Feministari lotutako aipuak agertu ziren soilik.

⁸ CUPeko emakumeek, prentsaurreko batean, haien kontrako irain sexistak eta jendarte patriarkalak egindako erasoak salatu zituzten. Info gehiagorako: http://www.eldiario.es/catalunya/politica/mujeres-CUP-plantan-machista-social_0_478052559.html

beltzak, tortura, espetxea, espetxe ostea) eta bereziki horiek guztiak bizitzeko era eta horrek eragin dizkigun ondorio pertsonal eta kolektiboak, politikoak biak, oraindik aztertzeaz ditugula esan zen.

-Gatazkaren kontakizuna androzentriko eta matxista izan da: Gizarteak eta Estatuak elikatu duten emakumeen papera eta iruditegia ez salatzeaz gain, birproduzitu ere egin dela aipatu zen. Emakumeok, arreba, ama, bikote eta alaba gisa kokatu gaituztela adierazi zen, eta horrek protagonismoa eta subjektu izaera kendu digula. Oro har ez zaigula ikusi nahi izan erasotzaile eta borrokalari gisa eta hori ukatzeko infantilizatuak, inbisibilizatuak eta biktimizatuak izan garela ondorioztatu zen. Gure subjektu izaera ukatzeko estrategiei, besteak beste desprestigioari, paternalismoari eta estigmatizazioari, ez zaiela aurre egin eta emakume borrokalariaren irudia ez dela emakumeok eraikia izan azpimarratu zen. Sortutako lidergotza ereduak ezbaian ipini dira, ordea, gudariaren figura esate baterako. Gudaria=gizona/ zaintzailea=emakumea, edo gizona=gatazka/emakumea=bakea dikotomia eta logikak Ezker Abertzalean izan duen eraginaz galdegin zen. Zentzu horretan borrokaren erreproduzio emozional eta materialari begira emakumeok bete dugun papera bera ere ez dela behar den beste balioan ipini adierazi zen, esate baterako presoekiko sostengu lanak (dispertsioak emakume aurpegia baitu). Emakumeekiko irudi estereotipatuak eta rolen naturalizazioak barne mailan izan duen indarrak galdegin zen.

- Kultura politikoan, patriarkatua berregin da: Emakumeen eta, bereziki, feministon arteko saretze falta nabarmendu zen, espazio legitimo eta aitorturik ez dugula lortu bederen (nahiz eta talde feministak beti egon diren). Gatazkaren irakurketa feminista egiteko zailtasunak izan ditugula, iraganean zein gaur egun. Gatazkaren baitako jazarpen patriarkala bigarren mailakotzat jotzeko langa hausteko indar eta gaitasun falta izan dugula adierazi zen. Izan ere, guk geuk memoria historiko falta handia dugula esan zen, egin izan diren ekimenen berri ez baitugu, adibidez gerra zikinaren garaian emakumeen arteko saretzeen berri. Aitortza ezak eta ikusgarritasun ezak geuri ere eragiten digula eta zentzu horretan belaunaldi arteko transmisioaren hutsune nabarmena azpimarratu zen.

Bestalde, gatazkari geuretik ekarpena egin beharrean, eman zaizkigun gatazkaren parametro eta baldintzetara gu geu moldatu garela aipatu zen. Ondorioz, prestigiotsuak ziren militantzia eredu eta rolak garatzera jo izan dugu estrategia gisa, nahiz eta tarteka sedukzioarena ere erabili. Bi bide horiek inguratu gaituen kultura politikoaren berri ematen digute beraz: prestutasuna, tinkotasuna, zalantza eza, zurruntasuna. Adierazi zen kultura politiko itxia osatu dela, kontraesan handi horiek lantzeko beldurra izateraino.

Azkenik, gaur egunera etorri, aipatu zen badirudiela hutsune horiek guztiak, gatazka politiko-armatuarekin batera denboran luzatu, eta orain hasi direla eztanda egiten. Bereziki bi mailatan gertatzen dela uste dugu: batetik, lanketa ezak eragiten dituen ondorioengatik⁹ eta bestetik, irakurketa feminista egin eta memoria feminista eraikitzeke egun sumatzen den grinagatik.

c) **Mugimendu Feminista:** Ezker Abertzalean feminismoa behar den beste eta behar zen moduan landu ez zen bezala, Mugimendu Feministan gatazkaren gaia apenas landu dela aipatu zen. Lanketa ahul horrekiko irakurketa ezberdinak egin ziren, izan ere partaide batzuek balantze baikorragoa egin zuten eta egin diren gauzekiko memoria falta azpimarratu zuten. Beraz, ez zen guztiz argi geratu ea Mugimendu Feministak gatazkaren genero irakurketa egin izan duen edo ez; batzuen iritziz, tortura eta komunikabideen trataera sexista, esaterako, ez dira salatu izan feminismoetatik, eta beste batzuen ustez bai, nahiz eta zentralitatearik ez lortu. Hala ere, gatazkak ekarritako polarizazioak Mugimendu Feminista bera ere indarrez zeharkatu duela nabarmen geratu zen. Honen ondorioz Mugimendu Feministan gaia lantzeko zailtasuna areagotu dela eta saiakera ezberdinen aurrean erresistentziak agertu direla adierazi zuten bertaratutakoek. Ezker Abertzaleko feministak bi egoera hauen artean erdibituta sentitu direla aipatu zen, "Abertzaletasuna vs Feminismoa" logikan, eta modu batera edo bestera gatazkaren ulerkera oso mugatua jaso dugula herentzian, eta irakurketa integralagoa oraindik egiteke dagoela. Aliantza eta zubi lanen ausentzia nabarmendu zuten hainbatek.

⁹ Balantzearen atalean zehatzago azalduko direnak

Ahotsak ekimena nabarmendu zen ibilbide horretan. Batetik, gogora ekarri ziren emakumeen ekimena izatetik ekimen feminista bilakatzeko egindako lan eta borrokak, eta bestetik, oso garrantzitsua izan arren ekimena bizirik mantentzeko lanetan asmatu ez izana aipatu zen. Izan ere, Ezker Abertzaleetik behar den beste denbora ez eskaintzeaz gain, ekimena bera ulertzeko zailtasunak egon zirela gogoratu zen. Hala ere, gatazkaren konponbidea beti gizonen ikuspegitik aztertu denez, egoera hori apurtzeko saiakera gisa eta emakumeon ikusgarritasunaren bidean emandako urrats modura kokatu zen.

d) **Aurrera begirako proposamenak:** Orokorrean egungo abagunea gatazkaren berrirakurketa feminista osatzeko aukera bezala ikusi zen, baina txanpon beraren beste alde bezala, lan hau egin ezean kontakizun androzentrikoa eta bakearen irakurketa partziala finkatzeko arriskua egon litekeela aipatu zen.

Ekarpenak lau norabide hauetan egin ziren:

-Bakea eta biolentzia feminismotik problematizatzeko beharra: Atzera begirako soa eta aurrera begirakoa ikuspegi feministatik lantzea proposatu zen. Zentzu horretan, “erresoluzioa feminista ez bada, ez da konponbiderik izango” leloa azpimarratu zen. Konponbidea feminista izendatzeko aukera arriskutsutzat jo zen arren, hau edukiz hustea bake faltsu bat eraikitzen hastea izango litzatekeela adierazi zen. Bide horretan erabakitze eskubidea ikuspegi feministatik lantzearen beharra proposatu zen, emakumeak subjektu aktibo bilakatzeko, gatazkaren eta erresoluzioaren irakurketa integrala eginaz zein patriarkatuaren biolentzia erdigunera ekarri eta, horrela, neutraltasunaren diskurtsoa gaindituz. Ondorioz, bakea eta biolentzia kontzeptuak birdefinitzeko premia agerian geratu zen.

-Emakumeen bizipenak jaso eta kontakizun anitzak osatzeko beharra: Iruditegi maskulinoa eraisteko (jabetuz, betiere, zailtasun handiko kontua dela), kontakizun historikoan emakumeon ekarpen anitzak gehitzeko premia hitz egin zen, biktima rola gainditzen zein zaintza edo borrokaren erreproduzioan jokaturako papera balioan ipintzen, besteak beste. Ezagutza hori sortzeko, lehenik emakumeen bizipenak jaso behar direla aipatu zen: testigantzak, ikerketak eta estatistikak osatzea eta ondoren zabaltzea, diskurtso sendoa eratuz. Zentzu horretan, eragile batzuk publikoki zalantzan jartzeko prest ote gauden galdegin zen. Bestalde, beste herrialde batzuetako gatazketako emakumeekin esperientziak konpartitzearen aukera ere proposatu zen.

-Zeregin hau Euskal Herriko Mugimendu Feminista osora hedatzeko beharra: Emakume edo feminista abertzaleen esku soilik ez uztearen beharra azpimarratu zen; aitzitik, egon litezkeen emakumeen kontakizun ezberdinetara irekitzeko beharra ere aipatu zen. Modu horretan, gatazkaren inguruko feministon ahotsa posizio ideologiko ezberdinen artekoa izan litekeela ikusi zen, betiere minimo batzuk adosteko aukerarekin. Mugimendu Feministan aliantza osatzeko eta gizonek sortutako gatazkaren bi bandoak ez berregiteko aukera dagoela ikusi zen.

-Zauriak kolektiboki osatu eta egun errepresioaren samina pairatzen ari direnekin elkartasun eta aitortza sareak osatzeko beharra: Egungo presoen inguruan dagoen sare tekniko eta emozionala problematizatu eta ikusarazteko beharra azpimarratu zen, baita Euskal Herrikan kanpo ere, nazioartean ditugun sare feministen bidez. Beste alde batetik, gatazka luzea eta biolentziaz betetakoa izan den heinean, osasuntze prozesuak abiatzeko beharra adierazi zen, kolektiboki horretaz aritzeko guneak sortuz, besteak beste. Torturari lotutako kulpa ikuspegi feministatik ere lantzea izan daiteke adibide bat. Honekin hitz egiteko abagunea zabaldu liteke, baita gizonei ere.

4. FEMINISMOA ERDIGUNEAN IPINIZ, KULTURA POLITIKOA ETA MILITANTZIA EREDUAK ERALDATU

Gatazkaren berrirakurketa egiteko unean, bertan bildutako emakumeen bizipenek leku handia hartu zuten. Gainbegirada kritiko horretan Ezker Abertzalearen kultura politikoak, militantzia ereduak eta

oro har feminismoa bazterretik erdigunera eramateko beharrak zein horretarako dauden zailtasunek metodologian aurreikusi baino askoz leku eta pisu handiagoa hartu zuen.

Hala ere, modu oso laburrean jasoko ditugu aipatutakoak, lengoaia ezberdinen bidez bada ere, ideia eta sentipen berberak errepikatu baitziren. Bestalde, egoera deskribatzeko eta sentipenak agertzeko erabili zen tonua idatziz jasotzea nekeza den arren, oro har bi sentipen kontrajarriren presentzia nabarmena izan zen: Bata, ezintasuna, frustrazioa eta haserrea. Bestea, jauzi kualitatibo eta indartsua egiteko determinazio eta gogoia.

Eremu honetako ekarpenak hiru ataletan banatu ditugu:

a) *Balantzea*: Ezker Abertzalean feminismoaren aldarria proiektu politikoan eta egituraketan jasotzeko emandako pausoak aitortu ziren arren, orokorrean balantze ilun xamarra gailendu zen. Duela hamarkada bat egindako barne prozesu feministak ekarri ziren gogora, baina baita horien emaitza gazi-gozoak ere. Prozesu horiek bururaino ez eraman izanak utzitako ondorioak azpimarratu ziren: Ezker Abertzaleko militantzia zurrun eta itxia deserosoa izan denez emakumeentzat, erreakzio gisa gune feministetan babesteko joera egon da (trintxera eran), eta beraz, Ezker Abertzaleko egiturak emakumez hustu dira. Gune misto horietan diharduten feministen ezintasunak, bakardadeak eta beldurrak azpimarratu ziren. Funtsean, feminismoa transbertsalki lantzea lortu ez den heinean, militantzia espazio horietan gizonen botere kontzentrazioa apurtzea ez dela lortu baloratu zen. Gune mistoetan eta ez mistoetan dauden feministen arteko saretze, aliantza eta elkar laguntzaren beharra azpimarratu ziren horrenbestez, norabide berean aurrera egiteko estrategia baten beharrarekin batera.

b) *Beharrak*: Ezker Abertzaleak garai berrietara egokitu behar duela errepikatu zen etengabe, bai eta genero harremanen ardatza aintzat hartuko duen militantzia eredu eta kultura politiko berria eratzea beharrezkoa duela ere. Eredu berri horretan, orain arte baloratuak eta prestigiotsuak izan diren balio eta jarrera batzuk leundu, eta beste lan eredu eta balioak prestigiatu beharra aipatu zen. Konfrontazio hutsean eta sakrifizioaren logikan oinarritzeari utzi eta lan moldeen abaniko zabalagoari zein militantzian gozamenari leku egitearen beharra aldarrikatu zen. Feminista gisa korapilo horiei guztiei erresolutiboki begiratzen hastea ezinbestekotzat jo zen (zaintza, baloreak...); denaren kontra baino, zer eraiki eta nola konpondu pentsatu beharko genukeela alegia, bereziki nondik hasi edo lehentasunak zeintzuk diren argituz. Horretarako, kide feministen aldetik ekarpen handia egin daitekeela ikusi zen, baina feministak barne mailan duten botere falta oztopo gisa agertu zen. Aldi berean Ezker Abertzalea barne gogoeta eta birpentsatze ariketan egonda eta estrategia berriak praktika berriak behar dituen heinean, urratsak emateko abagune egokia zela ere azpimarratu zen. Beraz, boterearen eta boterea hartzearen definizioetan findu, eta gutxi batzuen eskuetatik askoren eskuetara igarotzeko unea dela esan zen, lidergotzak kolektibizatzea, alegia. Zentzu horretan, aurreko belaunaldietako emakume eta feministekin ezagutza eta esperientzia konpartitzearen beharra zein erreferentzia berriak sortzearen beharra nabarmendu zen.

Azkenik parte hartze politikorako baldintza ezberdintasunaz gogoeta egin eta Ezker Abertzalean eman den emakumeen ihesa hobeto aztertze beharra aipatu zen: gaztetan botere gabe, ostean amatasunaren katea eta ondoren zaharregiak. Zer gertatzen ari da?

c) *Estrategia posibleak*: Feministon presentzia botere bilakatzeko bide ezberdinak aztertu ziren. Horien artean galdera hauek pausatu ziren, hiru ataletan multzokatu ditugunak:

1- Erresistentziak: Zer egin feminista ez diren emakumeekin eta gizonekin? Nola hautsi pribilegioak? Nola borrokatu erresistentziak?

2- Estrategiak: Gune feminista paraleloak osatu ala zuzenean botere erdiguneetara jo indarrez? Parte hartzerako muga gorriak ipini eta ostantzean desobedientzia (barne plantoak) egin? Pedagogia egin eta aliatuak bilatu behar ditugu? Edo teoritik praktikara urratsak emateko Ezker Abertzalea konpromisoak hartzera behartu eta presio talde feminista bat osatu behar dugu? Nola uztartu eta elikatu feminismoa irabazten hasi den kale presentzia eta barne mailan ditugun

oztopo larriak? Nola lortu Nazio Askapen Mugimenduak Mugimendu Feminista aitortzea? Gazte belaunaldiak feministago datozen heinean, botere guneetara sartzeak lagundu diezaguke? Nork lideratu behar du Ezker Abertzalea feminista bilakatzeko prozesu hau? Nola probestu abagune berriaren aukerak, saiakera galdu ez bilakatzeko?

3- Gure ahalduntze prozesua: Nola ahaldundu dugun boterea erabiltzen hasteko? Zein da gugan beldurrak eta ahalduntze faltak duen pisua? Ezker Abertzale barruan esleitu zaizkigun rola (eta barneratuak ditugunak) hausteko ariketa nola egin? Nola hautsi gizonen rola erreproduzitzeko hartu dugun joera? Nola gaingitu feministok boterea eskuratu eta boterean eroso egoteko ditugun zailtasun eta gure indarrekiko sinesmen falta?

AURRERA BEGIRAKO GOGOETA

Lan handia dugu oraindik egiteko. Ikusi dugunez, eremu ezberdinetan eragiteko beharra dugu: kontzeptuen birdefinizioan, gertatutakoaren analisi feministak egiten, historiaren kontaktan errelato guztiak barnebiltzen, gatazkaren konponbidean emakumeon parte hartzea ziurtatzen, militantzia ereduaren eraldaketan...

Txosten honetan gehien bat Eskola Feministetan ateratako korapilo eta erronka nagusiak antolatzen saiatu gara.¹⁰ Ez da dokumentu itxi bat, eta ez dugu burutzen dugun diagnostikoa ixteko inolako helbururik. Beste emakume batzuekin eta euskal jendartearekin eztabaidak abiatzeko erreminta izatea gustatuko litzaiguke, bakea eta elkarbizitza bezalako kontzeptuen gaineko ikuspegi irekiagoak eta barneratzaileagoak bultzatuko dituen.

Normalizazio politiko bezala ulertzen dugun horretara heltzeko bidean, badakigu asko dagoela egiteko, eztabaidatzeko eta proposatzeko. Ideia hauekin, zintzilik dagoen eztabaida sozialari ekarpena egin nahi diogu eta emakume guztiak modu aktiboan parte hartzera gonbidatu eta animatu nahi ditugu. Erronka hauei heldu eta gatazka politikoen irakurketa feminista baten bidean pauso atzeraezinak ematen joatea gustatuko litzaiguke. Bakoitza bere esparru eta kolektiboetan, baina aldi berean elkarlanerako eta elkar indartzeko espazioak sortuz.

¹⁰ Informazio gehiago nahi izatekotan, hemen jardunaldien berri ematen lagundu ziguten hainbat komunikabidek argitaratutako albiste eta bideoak:

Berria egunkaria: Zigor bikoitza: Kartzela eta patriarkatua – Iker Tubia

http://www.berria.eus/paperekoa/1994/012/001/2016-01-17/zigor_bikoitza_kartzela_eta_patriarkatua.htm

Argia aldizkaria: Emakumeentzako bakea noizko? – Danele Sarriugarte

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2493/euskal-gatazkaren-konponbidea>

Ahotsa.info atari digitala: <https://www.youtube.com/watch?v=zzfHOztAKkM&feature=youtu.be>

EMAGUNE: BAKEAREN ETA ELKARBIZITZAREN INGURUAN ELKARREKIN EGINDAKO GOGOETAREN ONDORIO BATZUK

Bilbo, 2016ko Irailaren 30a

EMAGUNE ehuGuneren baitan sortutako ekimen bat da. EhuGune UPV/EHUren eta gizartearen arteko topaleku bat da, estrategikotzat edo lehentasunezkoztat jotzen diren gai sozial, kultural, ekonomiko eta politikoez eztabaidatzeko. Gai horietako bat bakea eta elkarbizitza da.

2014ko maiatzean ehuGunek proposatu zuen ikusmolde desberdinetako emakumeen topaleku eta gogoetagine bat irekitzea, emakumeek geure ekarpenak egiteko ETAk armak utzi ondoren euskal gizartean sortutako egoera berriaren inguruan.

Horrela sortu zen EMAGUNE 2014ko maiatzean. Bi urte hauetan hilean behin edo bi hilean behin bildu gara, eta gogoeta egin dugu emakumeek beste gatazka biolento batzuetan izandako esku hartzeaz, «Ahotsak» esperientziaz, eta, batez ere, aztergai izan dugu guk geuk nola bizi eta ikusten dugun iragana eta gaur egungo abagune hau.

Dokumentu honetan jaso ditugu EMAGUNEen modu jarraituan parte hartu dugun emakumeek elkarrekin egindako hausnarketaren ondorio nagusiak. Taldeko emakume guztiek beren burua feministatzat jotzen ez badute ere, denok uste dugu feminismoa funtsezko baliabide eta tresna dela gizartea aztertu eta eraldatzeko, laguntzen digulako kanpotik ezarritako erreferenteak kolokan jartzen, geure burua sendotzen, zapalkuntzak identifikatzen, emakumeen artean elkartasuna izaten eta pentsatzen eta bizitzen dugunari zentzua ematen. Beraz, ikuspegi hori beharrezkoa iruditzen zaigu interpretatzeko zer-nolakoak diren gatazkaren errealitateak eta zer esan nahi duen gizarte demokratiko eta baketsu batean bizitzeak.

Ardatz harturik emakumeen parte hartze soziopolitiko «euskal gatazka»n eta bakearen eraikuntzan eta finkapenean, gutako bakoitzak bere esperientzia eta iritziak partekatu ditu, eta hortik sortu dira dokumentu honetan jasotako ideiak, errealitateari begiratzeko era jakin bat islatzen dutenak.

EUSKAL GATAZKAREN DIAGNOSTIKO ALDEANIZTUN ETA ZABALAGO BATERANTZ

Euskal Herriaren azken aldiko historian «euskal gatazka» deritzonari baino ez zaio egin aipamena, eta hari lotutako indarkeriari besterik ez zaio erreparatu. Begirada hori murriztailea izan da, eta neurri batean, gure gizartean sustraituta eta egituratuta dauden beste gatazka eta ezberdintasun sozial batzuen garrantzia ezkutatu eta desitxuratu du. «Euskal gatazka»k arreta soziopolitiko guztia bereganatu du eta itzalpean utzi ditu indarkeria sortzen duten beste egoera batzuk; beste egoera horiei ez zaie garrantzirik eman, eta ez zaie modu berean heldu. Ikuspegi horretatik, iruditzen zaigu beharrezkoa dela Euskal Herriaren iraganaren eta orainaren diagnostiko zabalago eta osoago bat egitea, islatuko duena euskal errealitate aldeaniztunago, konplexuago eta ertz gehiagokoa, hortik abiatu bakoitzak bere egoera baterantz ibiltzen has gaitzen.

Bigarren mailan utzitako gatazka horietako batzuk dira, batez ere, genero desberdintasunek, arrakala sozioekonomiko eta laboralek, erlijio, identitate eta hizkuntza inposizioek eta kultura eta arraza bereizkeriek eragindakoak. Horiek guztiek eragina izan dute, eta dute, euskal gizarteko pertsona askorengan. Gatazka horiek indarkeriarik gabe gainditzea ezinbestekoa da bakea eta elkarbizitza gure herrian finka daitezen.

Genero desberdintasunak nonahikoak eta noiznahikoak izan dira, eta dira, euskal gizartean. Ezberdintasun horiek emakumeen aurkako bereizkeriazko eta indarkeriazko jokabideetan oinarritzen

dira. Era askotakoak izan daitezke jokabideok (fisikoak, psikologikoak, kulturalak, sinbolikoak eta abar), eta harremanen hainbat arlotan gauza daitezke (harreman pertsonaletan, familian, lanean, esparru politikoan, instituzionalean) eta hainbat modu eta neurritan. Praktika horien agerbiderik gordinena eta ikusgarriena emakumeen hilketa da. Beraz, genero gatazka ere herri honen errealitate historikoa eta etengabekoa da. Bulkada politikoa duen indarkeria azken urteotan gutxitu bada ere, emakumeen aurkako indarkeriazko eta bereizkeriazko jokaerak ez dira desagertu. Hortaz, matxismoa berebiziko oztopoa da bakerako eta elkarbizitzarako.

Euskal gizarteko desberdintasun sozioekonomikoak eta lan prekarietatea ere gatazka historiko batez mintzo zaizkigu, herri honetako aberastasunen banaketa desorekatua dela eta. Horren ondorioak bereziki larriak dira euskal gizartearen zati handi batentzat. Gainera, urte batzuetatik hona arrakalak handitu egin dira, eta banaketa desorekatu hori nabarmenago egin da: jende gehiago bizi da pobrezian eta laguntzen mende. Euskal emakumeek pairatzen dute oraindik ere prekarizazio eta pobrezia handiena, eta aberastasunen banaketan bereziki agerikoak dira genero desberdintasunak.

Immigrazioa eta kultur aniztasuna ere gatazka moduan planteatzen dira euskal gizartean, eta kezkatzeko moduko arrazakeria eta xenofobia zantzuak daude. Uste dugu etnozentrismoari buruzko autokritika eta interpelazioa falta direla, nahiz eta, aldi berean, erreakzio eta abegi ahalmen handia ere badagoen, azken aldion herritarren zenbait plataformak erakutsi duten legez. Desberdina den pertsonaren aurrean zelako jarrera hartu eta dibertsitatea zelan kudeatu: gai hauek zalantza ugari sortzen dizkigute eta gizarte gisa ez ditugu oraindik argitu. Beraz, identitatearen kontzeptura hurbiltzeko bide alternatiboak landu behar ditugu, ikuspegi zabalago eta barne hartzaileago batekin. Euskal gizartean esperientziaz dakigu inposizio identitatarioro eraso bat dela, eta sufrimendu handia sortzen duela. Gure jarrera da identitateak askotarikoak direla, eta ez direla ez estankokoak ez homogeneoak, eta guztienganako begirunea aldarrikatzen dugu.

Era berean, uste dugu euskal gizarteak kanpokoarengana, hau da, beste herrialde batzuegana, pentsaeraz eta ekintzez erakusten duen elkartasuna eskutik helduta joan behar dela gure inguruan bertan jatorriagatik egiten diren bereizkerien salaketa sendoagoarekin. Bereizkeriazko jokabide horiek emakume migratzaileek pairatzen dituzte bereziki.

Identitatearen gaiari estu loturik, hizkuntza ere gatazkaren beste ardatz bat izan da euskal gizartean, eta eragina izan du harreman pertsonaletan, sozialetan, laboraletan eta kulturaletan. Euskara ikasi eta erabiltzeko zailtasunek —hainbat arrazoiengatik, eta une historiko desberdinetan— frustrazio, ume zurztasun, bidegabekeria eta lekugabetze sentimenduak sortu dizkigu. Kasu askotan, euskara ideologia konkretu batetara lotu izan da eta honek, bere erabileran, prestigio sozialean eta defentsan negatiboki eragin ahal izan du, eta horrela gai hau gizartearen zatiketarako ardatz bihurtu da artifizialki.

ZENBAIT OSAGAI KOMUN IZANGO DITUEN IRAGANAREN ETA ORAINAREN KONTAKIZUN BATERANTZ

Andre guztiok jasan ditugu gatazka politiko-armatuaren ondorioak eta bertan murgilduta bizi gara denok, baina oso modu desberdinetan eragin eta eragiten digu. Gatazkek gure bizitza, harreman pertsonal eta sozialak eta geure identitatea bera ere baldintzatzen ditu. Hala ere, gatazkaerikiko harremanaren neurriak askotarikoak dira: andre batzuek sentitzen dute gatazkek alderik alde zeharkatzen dituela zuzenean; beste batzuek, aldiz, zeharka eragiten diela uste dute.

Gure abiapuntua da «euskal gatazka»ren gaineko kontakizunen ugaritasun eta baliokidetasuna ona dela. Gure pentsaera horren inguruan ez da beti bat izan; gatazkak berak bilakaera bat izan du eta gure jarrera baldintzatu du. Gatazkaren irakurketa estu, itxi eta muturrekoek hainbat sentimendu sortu dizkigute: ezintasuna, inkomunikazioa, ulertu ezina, itxikeriaren pertzepzioa, autozentsura, haserrea, askatasun falta, beldurra, amorrua, frustrazioa, konfiantza galtzea, nekea eta bihotz estura. Alde onetik begiratuta, batzen gaituena da aldaketarako gogoia, aurrera egiteko indarra eta bestearen sufrimenduari enpatizatzeari aitortzen diogun garrantzia.

Gure gizartean nagusi izan den kultura politikoan alde handia egon da alderdi politikoaren eta herritarren artean, eta horren ondorioz tentsio nabarmena sortu da bi munduon artean: klase politikoak ez dio gizarteari entzun, eta oraindik ere ez dio entzuten. Askotan sektore politikoetatik edo hedabideetatik bultzatu nahi denaren aurka, eta euskal gizartean gatazkaren irakurketa desberdin asko egon arren, gizartea bera ez dago pentsarazi nahi diguten bezain zatituta. Halaber, azken aldion protesta eta aldarrikapen moduak ere aldatu egin dira, dinamika alderdikoetatik harago joanez, eta hori ere positiboa da.

ETAri dagokionez, taldean parte hartu dugun emakumeek zenbait mugarri identifikatu ditugu, hamarkada hauetan eragin zuzena izan dutenak indarkeriari buruzko jarreraren aldaketetan. Aldaketa pertsonal horiek, sozialak ere izan direnak, hainbat modutan mamitu dira: ETAREN logika militar eta bertikalari buruzko kontzientzia eta desadostasun gero eta handiagoa izatea; zalantzan jartzea defentsaren ideia borroka armatuaren justifikazio gisa, eta borroka armatuak zilegitasuna galtzea; bakearen aldeko manifestazioetan parte hartzeko moduko ondoeza eta konbentzimendua izatea. Oro har, aldaketa hauek ez dira joan ETAREN estrategia aldaketan eskutik; aitzitik, distantzia handituz joan da. ETAREN indarkeriak sufrimendu zuzena sortu die biktimei eta haien senitartekoei, eta zatiketa eragin du euskal gizartearen harreman pertsonal eta sozialen eremu guztietan.

Estatuaren indarkeriari dagokionez, uste dugu errealitate bat izan dela ETAREN aurretik eta ondoren, eta jende askok pairatzen duela oraindik ere. Euskal gizartearen parte handi batek hamarkadak daramatza indarkeria hori bizitzen (atxiloketak, torturak, epaiketa politikoak, kartzela, sakabanaketa, erbeste...), eta gizartearen beste parte bat, aldiz, horretatik guztiz aparte bizi izan da. Estatu eskubide politiko eta sozialak gero eta gehiago mugatzen joan da, terrorismoa aitzakia hartuta, eta horren aurrean erakundearen eta gizartearen erantzuna ahula izan da. Gainera, diferentziak inolaz ere onartzen ez dituen Estatuaren zentralismoa dela eta, gatazka bere ondorioetatik (hau da, zuzeneko indarkeriatik) harago doa.

EMAKUMEEN PARTE HARTZE AITORTUAGO ETA PAREKATUAGO BATERANTZ: BAKEA BOTEREAREN BANAKETAREKIN

Euskal Herrian bakea eta elkarbizitza finkatzeko, beharrezkoa da demokrazian sakontzea, eta horrek boterearen banaketa bidezkoa eskatzen du, bai arlo politiko-instituzionalean eta bai sozialean.

Emakumeek «euskal gatazka»ren eta haren konponbidearen parte gara, baina ikusezina bihurtu dute gure rola, bigarren mailakotzat jo dute, ez dute parekotzat hartu, ez da aitortua izan eta batzuetan gainbegiratua ere izan da. Izan ere, gatazkaren bizipena bera ere genero harremanek zeharkatu dute. Horregatik, euskal andreen parte hartze soziopolitikoak lotura zuzena dauka gure gizartean dagoen boterearen banaketa eta erabilerarekin, eta horrek aparteko azterketa bat eskatzen du.

Euskal gizartean boterearen ikuspegi estu bat da nagusi, oso lotua arlo politiko-instituzionalari, zeina gehienbat maskulinoa eta maskulinizatua den bere antolaera eta adieraz moldeetan, eta zeinetan emakumeon presentzia eta gure aldarrikapen kolektiboaren ordezkariak txikiagoa den. Andreek oztopo ugari aurkitzen dituzte euskal politikagintzan, eta beren kabuz ekimenak lideratu gura izan dituztenean gizonak haiek gutxiesten saiatu dira, are deuseztatzen ere. Izan ere, elkartasun maskulinoa eta «gizonen arteko itunak» sigla eta ideologia politikoaren gainetik daude, eta genero estereotipoek indar handia dute oraindik ere euskal jokaleku politikoan.

Aldiz, bai lehen eta bai orain, elkarrizketa bidezko konponbidearen alde diharduten herritar soilen elkarte, plataforma eta ekimenetan andreak dira gehiengoa, nahiz eta horrek ez duen ekarri andreak protagonismo handiagoa izatea gatazkarekin zerikusia duten lidergo espazioetan eta erabakiguneetan. Hau da, errazago aitortzen eta sustatzen da emakumeen rola elkarbizitzako espazioetako gizarte-hezitzaile eta bideratzaile gisa, ezen ez subjektu politiko gisa guk geuk ezarritako baldintzetan.

Boterearen banaketa desorekatua ez da mugatzen erakundeetara eta gobernu erabakietara. Euskal emakumeentzat gizartearen antolamendu patriarkalaren eta mendetasunaren aurkako borroka — andreen mendetasun hori elizako hierarkiak, besteak beste, historikoki defendatu duelarik — arlo guztietan jokatzen da eta oso latza da oraindik ere, gure gorputzean eta gure bizitzan ezartzen dizkiguten baldintza pisutsuak direla eta: beldurrak, familiari eta zaintzari lotutako rola, amatasunari ematen zaion garrantzia, sexu eta ugalketa eskubideei eman beharrean, sexualitate hertsatu eta kontrolatua derrigorrezko eredu heterosexualak baldintzatua, bazterketa lan merkatuan edo laneratze prekarizatua eta ez-parekoa, eta bestelako indarkeria matxistak.

Patriarkatua bere formak aldatuz eta egokituz joan da, berdintasun irudipen faltsu batek lagunduta, eta horrekin batera fundamentalismo erlijiosoak eta kontserbakortasuna ere hedatuz eta sendotuz joan dira azken urteotan. Horiek guztiak bakearentzako eta elkarbizitzarako mehatxuak dira, emakumeei askoz gogorrago erasotzen dietenak eta beste mehatxu guztiei bezain irmo erantzun behar zaienak.



15.
LIBRE EZIN
ASKE GARA
INDAR BAT DABIL HOR


EMAKUMEAK ETA ESPETXEA

1. EUSKAL EMAKUME PRESO POLITIKOEN EGOERAREN INGURUKO ANALISI FEMINISTA BAT

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTAK
SAREREKIN BATERA EGINDAKO TXOSTENEAN
OINARRITUTAKO LANA ETA PRESO OHIEN
HAUSNARKETAK BARNEBILTZEN DITUENA

2. HEMEN GAUDE

"KALERA, KALERA" EKIMENAREN BAITAN
EMAKUME PRESO OHIEK KALERATUTAKO MANIFESTUA





EUSKAL EMAKUME PRESO POLITIKOEN EGOERAREN INGURUKO ANALISI FEMINISTA BAT

ITXURAKERIARIK GABEKO MENDEKU MAKINA

Bilgune Feministaren aurtengo helburuetariko bat Espetxe martxa feminista antolatzea izan da, bereziki emakumeak eta kartzelaren gaiaren lanketan zentratuko garelarik.

Testuinguru honetan emakume presoengatik azterketatxoa eta gogoeta sakonago bat egitea beharrezkoa eta interesgarria iruditu zaigu.

Emakume presoengatik egoera oso gutxi aztertu da, bai eremu akademikoan bai eremu politiko-sozialean. Hori dela eta, ikuspegi kritiko eta feministatik urrats txiki bat eman nahi izan dugu, ikustezina dena ikustarazi nahi dugulako.

Gure ustez, emakume presoengatik egoera salatzea, espetxe sistemaren izaera heteropatriarkala jopuntuan jartzea, espetxeratzeak suposatzen dituen zaintza lanak, nagusiki emakumeon bizkar gainean egon direnak eta hala izaten jarraitzen dutenak aitortzea, zigor sistemaren inguruko gogoeta feminista bat bultzatzea eta dispersio politika salatzea funtsezkoa bezain premiazkoa da.

Erronkak ez dira gutxi ezta epe motzean lortzekoak ere. Lan ildo osoa jorratu behar da, eta esku artean duzun txostenean ez da elementu guztietan sakondu, baizik eta emakume presoengatik errealitate hurbiltzeko baliabide bat izan nahi du. Zenbait elementu teoriko aintzat hartuz, hainbat esperientzia pertsonal eta politikotan oinarrituz eta emakume presoengatik egoera eraldatzeko asmoz, gogoetatxo hau egin eta hainbat ideia luzatu ditugu aurrera begira joratzeko.

Halaber, Espetxe martxa feministaren dinamikaren bitartez, zenbait ekarpen, datu eta ideia bildu nahi ditugu, bereziki, emakume presoengatik aldetik, eta beraz, egun egiten dugun gogoeta aberastea eta osatzea dugu helburu.

ESPETXE SISTEMAREN EZAUGARRITZEA

Espetxea jendartearen zaborteia dela irudikatu digute. Bazterketa soziala pairatzen dutenen eremua dela aurkeztu digute. Eta bertan gertatzen den oro, ez omen du inporta. Presoak inork nahi ez duen zaborra osatzen duten herritarrak direla dirudite eta espetxeetan ematen diren errealitate gordinak ez omen zaizkio axola espetxetik kanpo dagoen jendarteari.

Espetxe sistema “zigor demokratikoa” dela sinestarazi nahi digute, baina espetxean funtsezko eskubideen urraketa sistematikoa da.

Botere harremanak oso nabarmenak dira. Heteropatriarkala, klasista eta arrazista den boterea iraunarazten da (espetxeetan ijitoak, etorkinak, txiroak eta drogamenpekotasuna duten pertsonen

¹ Kallean bazterketa soziala pairatzen dutenek espetxeratutakoak eta zigortutakoak izateko arrisku handiagoa dute. Arazo hau Mujeres, Integración y Prisión (Cruells eta Igareda, 2005) izeneko proiektuan “lehen mailako bazterketa” izendatu dute. Hau da, espetxeratu aurreko bazterketa. Eta “lehen mailako bazterketa” honi, espetxe sistemak eragindako bazterketa gehitu behar zaio. Halaber, María Naredo Molerok kriminalizazio femeninoa txirotasunaren kriminalizazioarekin erabat lotua dagoela teorizatu du.

presentzia neurritz kanpokoa da¹⁾) eta menderatze hori mantentzeko, presoen kontrako bortxa sistematikoa izateaz gain, instituzionalizatu egiten da.

Espetxe sistemaren helburua preso dauden pertsonak zigortzea da. Eta horretarako, jazarpena, umiliazioa, estigmatizazio soziala, menpekotasuna, indarkeria... baliatzen dute.

Espetxea, patriarkatuaren handitze ispilua

Sistema heteropatriarkalak, egiturazkoa den heinean, emakumeon bizi esperientzia eta dimentsio guztietan eragiten digu. Espetxean eta polizia-etxeetan patriarkatuaren ondorioak bereziki nabarmenak dira.

1 Klean bazterketa soziala pairatzen dutenek espetxeratuak eta zigortuak izateko arrisku handiagoa dute. Arazo hau Mujeres, Integración y Prisión (Cruells eta Igareda, 2005) izeneko proiektuan “lehen mailako bazterketa” izendatu dute. Hau da, espetxeratu aurreko bazterketa. Eta “lehen mailako bazterketa” honi, espetxe sistemak eragindako bazterketa gehitu behar zaio. Halaber, María Naredo Molerok kriminalizazio femeninoa txirotasunaren kriminalizazioarekin erabat lotua dagoela teorizatu du.

Preso egotea pertsona guztiontzat gogorra bada ere, emakumearen kasuan are latzagoa da. Sistema heteropatriarkalaren botere harremanak eta emakumeon kontrako bortizkeria, itxurakeriarik gabe, estalkirik gabe azaltzen du. Politikoki zuzena denaren zurikeria ez da beharrezkoa.

Espetxeak gizonengan pentsatuta diseinatu dituzte. Eta ikuspegi androzentriko, paternalista eta erabat estereotipatutik zuzenduak daude.

Emakumeentzat zigor anizkoitza

Emakume presoentzat zigorra ez da soilik askatasuna galdu izana eta gatibu egotea. Maiz, zigor bikoitza, hirukoitza, lauukoitza... hitz egin izan da. Akaso, anizkoitza dena eta ondorio ugari dituen zigorraz hitz egin behar dugu.

Espetxeak edo atxilo guneak XVII-XVIII. mendeetan sortu ziren eta ikuspegi androzentriko batetik diseinatu eta eraiki ziren. Espetxe egiturak berak ez ditu emakume presoak kontuan hartzen. Edo, hartzen dituenetan, mendeetan zehar ikuspuntu patriarkaletatik eraikitako ereduak sostengatzeko izan da.

Egungo espetxe eredura heldu baino lehen, emakumeendako aipaturiko atxilo guneak sortu ziren. Izan ere, giltzapeko zigorra, lehendabizi emakumeei zuzendua izan zen. Instituzio hauek bekatari ziren emakumeak berreskuratzea eta salbatzea zuten helburu. Funtzio nagusia “emakume damutuak” bideratzea zen. Hau da, instituzio hauek orientazio moralizatzailea zuten eta giltzapean zeuden emakumeen izate “biziata” zuzentzea zuten helburu.

Zigortzen zena bekatua zen, ez delitua. Izan ere, BEKATUA, kontzientziadun jarreratzat hartzen zen (konturatzea bere jarrera ez dela zuzena) eta emakumeengan pentsatuz sortu zen. DELITUA, ordea, kontzientziarik gabeko jarreratzat hartzen zen eta gizonengan pentsatuz sortu zen.²

² Dolores Juliano. Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino. (2011)



Estatu espainoleko 1978ko espetxe erreformara arte, adulterioa, abortua edota prostituzioa delitu femeninotzat (bekatutzat uler daiteke) hartzen ziren.

SALBUESPEN NEURRIAK eta ZIGOR PENALA

Emakume presoek salbuespen neurriak pairatzen dituzte eta espetxe sisteman genero politika hutsala da.

Oro har, bai Estatu frantsesean bai espainolean, gizonentzat egindako espetheen barruan kokaturiko emakume modulu edota dibisioetan egon ohi dira emakumeak. Estatu espainolean, emakumeendako hiru espetxe daude eta aipagarria da horietako bat bera ere ez zela, hasiera batean, emakumeendako espetxe gisa eraikia izan. Hortaz, emakume preso gehienak gizonentzat egindako espetxeetan daude.

Gehienetan, emakume moduluak gizonenak baino txikiagoak dira. Egun Estatu espainoleko emakume modulu asko bere garaian gizonenak baino txikiagoak dira. Horrek emakume presoek masifikazioa dakar eta bizi baldintzak izugarri okertzen ditu. Oro har, emakume moduluen egitura eta espazioa txikiagoa, zikinagoa, zaharragoa... izaten da.

Emakumeak kartzelako populazioaren portzentaje txiki bat dira. Estatu espainolean, %7,43 eta frantsesean %3 inguru da ³. Kopuru hori horren txikia izateak eta emakumeentzako espetxe edota emakume modulu gutxiago egoteak, hortaz, dispertsatuak egoteko arriskua dakar. Izan ere, emakume presoak gizonenak baino dispertsatuagoak egoten dira. Hau da, haien jatorritik urrun egoteko arriskua handiagoa da. Esate baterako, Estatu espainolean amentzako bi modulu baino ez daude eta, beraz, ama diren presoek kasuan, dispertsioa ia erabatekoa da.

Espetxe sistemak eskaintako hainbat jarduerak, ekimen kultural edota kirol ekimenetan parte hartzeko aukera gutxiago dute eta formakuntza jasotzeko edota lan bat lortzeko zailtasun gehiago izaten dute. Hau da, formakuntza tailerretan parte hartzeko edota lan ordaindua lortzeko aukera gutxiagotan izaten dute. Maiz, okerren ordainduak edo gogorrenak diren lanak (normalean gizonen nahi ez dituztenak) lortzeko aukera baino ez dute.

Oro har, emakume presoek zuzendutako jarduerak erabat estereotipatuak dira. Hots, josteta, pelukeria, sukaldea... Eta maiz, eskulanak egiteko materiala, irudiak... Walt Disney edo printzesen munduan oinarrituak dira, besteak beste, infantilizazioa eraginez. Emakumeen ahalduntzea bilatu baino, rol pasiboa edota zaintza rola iraunarazteko jarduerak saritzen dira.

Horretaz gain, osasunerako eta osasun zerbitzuak jasotzeko eskubidea ez zaie beti bermatzen. Emakumeentzako espetxe edota emakume modulu ugarietan ginekologorik ez egotea salatu izan dute presoek. Izan ere, Europako MIP proiektuan ⁴ agerian geratu da emakume presoek osasun beharrak eta gizon presoek ezberdinak direla. Eta behar horiek ez dira aseak inondik inora. Halaber, emakume presoek osasun mentalak espetxeratzean zehar okerrera egiten duelako zantzuak daude. Esate baterako, suizidioak eta norberaren buruari eragindako lesioak ugariagoak

³ 2016ko azaroko datuak. <http://www.institucionpenitenciaria.es/> eta <http://www.justice.gouv.fr/> European dagoen emakume presoek proportziorik handiena Estatu espainolean dago.

⁴ MIP: mujeres, integración y prisión ikerketa-proiektua. Cruells eta Igareda (2005)

dira emakume presoetan gizon presoetan baino.

Era berean, Frantses estatuan, erosketa katalogoak maskulinoak direla salatu izan dute hainbat emakume presok, eta adibidez, haientzako oinarrizkoak diren produktuak ezin dituzte eskuratu (tanpoi, konpresa...) eta espetxean banatzen dizkietenak kalitate eskasekoak edo ez-nahikoak direla adierazi dute.

Sexualitateari dagokionez, kartzetako egoera dela eta, kasu askotan, bikoiztuta (txaboloan binaka) egon behar izaten dute presoek (emakume zein gizonek), eta horrek intimitatea guztiz galtzea eragiten die, bai haien sexualitatea garatzeko, bai auto-plazera lortzeko. Frantses estatuan gainera, sexu harremanak ez dira onartuak eta bisitetan “ezkutuan” ibiltzera derrigortuak dira, eta beraz, guztiz oztopatzen zaie harreman afektibo eta sexual egoki bat garatzeko aukera.

Espetxe sistema erabat heteronormatiboa da eta harreman lesbikoak ematen badira ere ⁵, horiek infantilizatzeko joera dago. Hau da, kartzelero askok emakumeen arteko jolastzat hartzen dute. Beste aldetik, emakume modulutik kanpo emakume eta gizonen arteko afektibitate oro zigortzen da eta gizon-emakumeen arteko harremanik ez da apenas lantzen. Horrek, maiz, areagotu egiten du emakumearen gorputza debeku gisa bilakatzeko joera eta harreman heterosexualak modu obsesibo-gaixoan elikatzeak arriskua.

Preso transexualen inguruan ikerketa asko ez badaude ere, espetxean, handitze ispiluan bezala, transfobia gardena pairatzen dute. Estatu espainolean 2006tik preso transexualek eska dezakete (dena dela NAN dokumentuan ageri den sexu ofiziala) emakume moduluatan edota gizon moduluatan egotea. Halere, preso transexualaren eskaera onartzea edo ez, espetxeetako zuzendaritzaren esku dago.

Bestalde, misoginia ohikoa da sistema judizialean ⁶, polizia etxeetan eta espetxe sisteman. Delitu kopurua txikiagoa izan arren, emakumeek kondena urte gehiago dituzte. Horren atzean hamaika faktore badaude ere, horietako bi azpimarratuko ditugu.

Alde batetik, txiroek egindako delituei begirunerik gabe eta zigor handiagoa ezarri ohi zaie. Eta dakigunez, pobreziak emakume aurpegia du. Beste aldetik, emakumeei gertakari aringarri ⁷ gutxiago aitortzen zaizkie eta, gertakari larrigarriak ⁸ gehituz, kondena gogorragoak izan ohi dituzte. Gainera, hirugarren gradua lortzeko zailtasun gehiago izaten dute.

Hau da, zigor legean dagoen ikuspegi androzentrikoa dela eta, emakumeei jartzen zaien zigorra halako bi da, eta horrek sekulako defentsa gabezia eragiten du. Alegia, desberdintasun punitiboa dagoela ondoriozta daiteke, zeinetan delituaren izaeraren, delitugilearen generoaren eta zigor legearen interpretazio selektiboaren arteko ekuazioak onberagoa edo punitiboagoa den emaitza eman baitezake.

⁵ Tiziana Trotta kazetariak 2014an kaleratutako artikulu baten arabera, “emakume presoek %55ek espetxe barruan harreman homosexualak dituzte. Gizonen portzentajea, ordea, %35koa da”. Klean gertatzen den fenomenoaren alderantziko sortzen da, eta lesbianak bisibleak bilakatzen dira. <https://www.vice.com/es/article/el-sexo-en-las-carceles-espanolas-459>

⁶ “Zigor legea, genero ikuspegi kritiko batetik aztertuta, ez da neutrala ezta objektiboa ere; eta gehienetan batere bidezkoa. Azken batean, patriarkatuaren dominaziorako bitarteko nagusienetarikoa bat da.” (Estibaliz de Miguel, 2014). <http://redmujeresycarceles.blogspot.com.es/>

⁷ Gaztelaniaz atenuantes direlakoak

⁸ Gaztelaniaz agravantes direlakoak



ZIGOR MORALA

Espetxe sistemaren bilakaeran aipatu bezala, emakumeek egindako delituak bekatutzat hartu izan dira eta horrek sekulako zama moralizatzailea eragin du. Nonbait, delituak izaera maskulinoa eta bekatua, berriz, izaera femeninoa duela sinetsarazi nahi izan digute.

Halaber, bekatua errudun sentimenduarekin erabat lotua dago. Eta beraz, emakume preso askok haien espetxe zigorra errudun sentimenduarekin beteko dute. Eta horrek haien osasun fisikoaren eta psikologikoaren kaltetan eragiten du.

Pentsamendu patriarkalak delitu bat egikaritzea emakumearekin bateraezina dela pentsatzera garamatza, eta horrelako ekintza bat burutu duen emakumea “anti-emakume” bezala edota biktima bezala ikustera bultzatu gaitu.

Balitzko delitugileak jarrera kontzientea edo subertsiboa hartzen badu, “anti-emakume” gisa hartuko da eta emakumeari egokitutako rol pasiboa apurtzeagatik gogor zigortuko dute.

Bestalde, ikuspegi paternalista ere egon badago, delitua egiteko emakumea behartua izan delakoan edo delitua gizon baten eraginez egin duelakoan. Azken batean, jendarte patriarkalak emakumeari izaera autonomoa ez diolako aitortzen gertatzen da hori, eta emakumea objektutzat hartzen duelako.

Ikuspegi paternalista honek, besteak beste, biktimizazioa eta infantilizazioa dakar. Esate baterako, Estatu espainoleko zenbait emakume modulutan, preso/kartzelero dikotomian “niña” eta “seño”, hurrenez hurren, deitzea ohikoa da.

Bestalde, emakume presoek estigmatizazio handiagoa pairatzen dute. Alde batetik, sozialki delitugiletzat hartuak direlako (jendarte patriarkalean emakume eta delitugile izateagatik zigortuak dira) eta bestetik, emakume presoek beren burua delitugile bezala ere ikusten dutelako. Halaber, familiarekiko lotura errazago apurtzen da, zainduak izateko eskubidea ez zaie aitortzen eta emakume preso askok bazterketa pairatzen dute de facto, bai beren familiaren aldetik bai gizarte ingurunearengandik. Izan ere, ez da berdina izango kartzelaren ondorioa eta horrek eragingo duen lana “kanpoan” dagoen familiako kidea emakumea bada edo gizona bada; eta espetxean dagoenak jasoko duen laguntza eta zaintza ez da berdina izango preso gizona bada edo emakumea bada.

Alegia, “kanpoarekin” inolako loturarik gabe geratzen dira emakume preso asko, eta kanpoan zuten bikote harremana, gehienetan, espetxeratutakoan galdu egiten dute. Eta horrek, emakume preso askori, abandonatuak dauden sentimendua eragiten die, haien autoestimaren kaltetan.

Gainera, patriarkatuak emakumeari inposaturiko zaintzailearen papera hankaz gora jartzen da. Kartzelara sartzeko garaian familiaren zaintzaren ardurarekin ezin jarraitzeak eta, beraz, berari egotzitako zaintzaile lana errotik uzteak berezko zigorra ekartzen du. Familiarekiko banaketa, baina batez ere seme-alabekiko banaketa, oso traumatikoa izaten da ama-alaba gehienentzako eta horrek auto-zigortze eta errudun sentimenduan izugarri eragiten die.

Aipatzekoa da preso dauden emakumeen haurren zaintza, askotan, beste emakume baten eskuetan geratzen dela, normalean presoaren amarengan. Bikotekidea (gizonezkoa bada), lehen aipatu bezala, gehienetan desagertu egiten baita.

EMAKUME PRESO POLITIKOEN BERARIAZKO ZIGORRA

Orokorrean, emakume presoen egoera txarra bada, euskal emakume presoen kasuan dezente okertzen da.

Estatu espainolean, EPPKko kideak FIES-3 (Ficheros de Internos de Especial Seguimiento) gisa klasifikatzen dituzte eta Estatu frantsesean dauden asko DPS (Detenu particulièrement signale) bezala klasifikatzen dituzte. FIES eta DPS izaerak presoek gaineko kontrol berezia suposatzen du eta EPPKko kideei kontrol zorrotza eta murrizketa ugari ezartzen dizkiete, eta komunikazioetan ere eragiten die. Horrek isolamendu komunikatiboa edo “bakartze soziala” eragiten du, dispertsio geografikoak sortzen duen isolamenduaz gain. Izan ere, pertsona gisa garatu diren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik urruntzen dituzte, ez soilik geografikoki, baizik eta haien harreman sarea, korrespondentzia mugatua eta komunikazio mota guztiak (bisitak, gutunak, deiak...) interbenituak dituztelako, etab.

Lehen aipatu bezala, emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa da. Edozein emakumek (EPPKko kidea izan beharrik gabe) bizitzen duen egoera da dispertsioarena, hain zuzen, haientzako egokitutako kartzelarik ez dagoenez, sorterritik urrun dagoen beste kartzela batera bidaltzen dituztelako. Baina Preso Politikoen kasuan oraindik larriagoa da egoera hau, edonora bidali baititzakete, eta kasu askotan, bakarrik egotera heldu izan dira EPPKko kideak. Momentu hauetan,

Baina sakabanaketa ez da soilik geografikoa, kartzela barruan ere modulu ezberdinetan kokatu izan dituzte emakumeak (bai eta gizonezkoak ere), eta horrek are eta isolatuago egotera eraman ditu. Emakumeak, gutxiago izatean, beren artean isolatzea eta bakartzea gauzagarriagoa egiten da. Neskek, bakarka edo binaka egonik, isolamendu edo bakartzearen zigorra gizonezkoek baino gehiago pairatzen dute.

Horretaz gain, emakume preso politikoei, berez emakume moduluetan edota emakumeentzako espetxeetan dauden eskaintza eskasak are eta eskasago bilakatzen zaizkie, zenbait tailer eta jardueretan parte hartzea debekatzen baitiete.

Bestalde, preso politikoen artean ere emakume presoek kalean zuten bikotea galtzea gertatu izan da. Gainontzeko presoekiko zaintzan gertatzen den bezala, kanpoan dagoen bikotea emakumezkoa izan edo gizonezkoa izan, maiz, ez baita berdina.

EPPKan 51 emakume daude⁹ eta horietako hamabi, kolektiboko beste emakume kiderik gabe daude, bakarrik alegia¹⁰.

Euskal preso politikoen zaintza eta babesa ere emakumeen esku “egon da beti eta gaur egun ere halaxe egoten jarraitzen duela” diote euskal emakume preso ohiek, Usurbilen KALERA KALERA dinamikaren baitan egindako agerraldi batean¹¹.

Halaber, emakume preso politikoen kasuetan, arestian aipaturiko misoginia eta pentsamendu patriarkalaren epai morala oso nabarmena da. Disidente politikoak izateaz gain, emakume izateagatik komunikabide, polizia-etxe eta espetxean modu bikoitzean zigortuak izan dira. “Prensa

⁹ www.etxerat.eus, 2016ko abenduko datuak. Aipatzekoa da EPPKren %15 emakumezkoa dela; Estatu espainolean nahiz frantsesan dagoen emakume presoek proportzioekin alderatua (%7 eta %3 hurrenez hurren) bikoitza eta boskoitza da.

¹⁰ Arantza Zuluetaaren egoera azpimarratu nahi genuke. Atxilotu zutenetik espetxealdi prebentiboan dago, epaiketa egiteko zain (epaiketarik gabe prebentibo daukaten euskal preso bakarra da). Are gogorragoa da, ordea, bere espetxe egoera. Isolamenduan dago hasiera-hasieratik inorekin hitz egiteko aukerarik gabe, dituen elkarrizketa bakarrak ikusten dituen espetxezainak eta asteburuetak bisitak dira. Isolamendu egoera zenbait egun luzatzea tortura praktika bezala kontsideratua dago, eta Zuluetaaren kasuan ia hiru urte dira egoera horretan dagoela. http://bilgunefeminista.eus/eu/Artxibategia/Arantza_Zulueta_SOS_euskaraz



misoginoenen arabera emakume txarrak, ama txarrak, emakume desegokiak, komandoetako putak, terrorista odoltsuenak...” eta bestelako kalifikatiboekin literatura asko idatzi izan da. Estereotipo patriarkalen ondorioz, militante eta subjektu politikoen izaera ukatzen zaie horrela.

INDARKERIA SEXISTA

Hasieran aipatu bezala, espetxe sistemaren helburua, neurri handi batean, preso dauden pertsonak zigortzea da. Eta horretarako, jazarpena, umiliazioa, estigmatizazio soziala, menpekotasuna, indarkeria... baliatzen dute. Espetxea eremu erasokorra eta oldarkorra da. Eta indarkeria fisikoa (jipoiak, erasoak, bortxak...) eta psikologikoa (umiliazioak, zigor morala...) sistematiko erabiltzen dute. Egunerokotasunean botere harremanak oso presente daude. Presoen arteko harreman toxikoak eta hierarkikoak egon badaude, baina bereziki, kartzeleroaren eta presoaren artean ematen dira botere harremanak.

Eta honetan ere, genero aldagaia oso agerikoa da. Espetxe sistemak botere abusu sexistak ahalbideratzen dituela ozen salatu behar da. Isilik egotera derrigortzen dituzte horrelako eraso motak jasan dituzten emakume preso asko eta, bestela, errepresaliak izateko

¹¹ KALERA KALERA dinamikan euskal emakume preso ohiek aurkezturiko “Hemen gaude” manifestuaren zati bat. (2016/12/29) Eranskinetan dokumentu osoa aurkituko duzu http://www.berria.eus/albisteak/130151/emakume_preso_ohien_manifestua_hemen_gaude.htm

¹² http://www.eldiario.es/contrapoder/mujeres-abusos-prision_6_360523947.html eta http://elpais.com/elpais/2010/04/23/actualidad/1272010637_850215.html
-Langraiz Oka, 2009. Espetxeko zuzendariordea zigortu zuten emakume preso bat erasotu izanagatik.
-Alcalá-Meco, 2010. Espetxeko zuzendaritza osoa kargugabetu zuten, “faboreen” truke egindako eraso sexisten salaketa ugari publikatu ondoren.
-Soto del Real, 2013. Lau emakume presoek kontra behin eta berriz sexu erasoak egiteagatik funtzionario bat zigortu zuten.
-Brieva, 2015. Zenbait emakumek lau funtzionario salatu zituzten mehatxatuak, derrigortuak eta sexua izatera behartuak izateagatik.

mehatxuak pairatzen dituzte. Azpimarratu beharra dago eraso sexistak pairatu dituzten preso asko zeharo baldintzatuak eta ezinduak daudela salaketa judiziala egiteko. Eta, beraz, dauden datu eskasek icebergaren tontorra besterik ez dute islatzen.

Halaber, salatu behar da indarkeria eta botere abusuak baliatzeaz espetxe sistema osoa ustelduta dagoela, are espetxeko goi-mailako arduradunek ere emakume presoak eraso dituztelako ¹².

Bestalde, emakumearen gorputzaren erabilpena eman izan da. Emakume presoek jakin gabe, zenbait espetxetan jarduera misto “berezituetan” parte hartzera eskaini zaie. Eta emakume preso oniritzia izan gabe, bortxatzaileen sasi-terapiarako erabili izan dituzte. Hots, espetxeak jarduera bat eskaini, emakumeei esan gabe, haien ondoan dauden gizonak indarkeria sexistagatik (emakumeak bortxatu edo/eta erail izanagatik) zigorrak betetzen ari direla.

Halaber, modulutik atera gabe igortzen den gorputza emakumeena izaten da. Hau da, gizon presoak emakume presoak ikusteagatik ez aztoratzeko, maiz, emakumeak modulutik ezin dira atera. Gizon presoek, espetxean zehar, emakumeak baino mugimendu askatasun gehiago izaten dute. Eta horrek, maiz, emakumearen gorputza interpretatzeko ikuspegia obsesiboagoa eta gaixoagoa bilakatzen du.

Tortura sexista:

Lege antiterrorista delakoa ezartzen denean, inkomunikazioak kalearekin inolako loturarik ez izatea dakar. Hain zuzen ere, konfiantzazko abokatuaren edo medikuaren bisitarik ez izatea eta atxilotuaren inguruko informaziorik inori ez ematea suposatzen du. Erregimen hori bost egunetan zehar luzatu daiteke.

Inkomunikazioak tortura ahalbideratzen duela agerikoa da eta zoritxarrez hamaika datu objektibo, milaka salaketa judizial eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Estatu espainolaren kontra emandako zenbait ebazpen plazaratu dira, torturaren praktika sistematikoa dela islatzen dutenak. Izan ere, Amnesty International, Tortura Prebenitzeko Europako Batzordea eta nazioarteko hainbat erakundek erregimen hau bertan behera geratzeko eskatu izan dute ¹³.

Euskal Herrian, ezker independentismoaren mugimenduko emakumeek tortura sexista pairatzeko arrisku bikoitza dute. Alde batetik, emakumea izateagatik (edozein emakumek paira dezakeena), eta beste aldetik, disidentzia politikoagatik. Lehen aipatu bezala, misoginiaren eragina oso nabarmena da sistema judizialean, polizia etxeetan eta espetxe sisteman. Eta beraz, inkomunikazioaldian oso presente egoten dira bi aldagai hauek.

Tortura pairatu duten emakume gehienek tortura sexista jasan dutela salatu dute. Emakume izate hutsagatik zenbait tratu berezitu pairatu behar izan dituzte. Hala nola, haien agentzia ukatzea eta (haien militantzian rol pasiboa edo bigarren mailako ardurak zituztela adieraztera behartzea...) galdeketak biluzik egitea, ukimenak, umiliazioak, irainak, bortxaketa mehatxua edota simulazioak, etengabeko ahozko jazarpena...

¹³ <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/ocho-condenas-del-tribunal-europeo-de-derechos-humanos-evidencian-que-la-investigacion-de-torturas/>

¹⁴ Horietakoa kasu bat Nekane Txapartegi militantearena da. Txapartegiren jardun politikoa publikoa izan da ezkerreko mugimendu sozialetan. 1999an atxilotu zuten eta torturatu egin zutela salatu zuen. Bestiak beste, elektrodoak eta poltsa ezarri zizkioten, sexu jazarpena pairatu zuen eta lau poliziak bortxatu egin zuten. 2016ko apirilean, Zurichen Suitzako poliziak Nekane atxilotu zuen eta Estatu espainolera “ez estraditatzeko” kanpaina abiatu zen. [http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2016/07/1467627291-emaraun-ekaina16-baxua\(1\).pdf](http://bilgunefeminista.eus/uploads/erab_1/2016/07/1467627291-emaraun-ekaina16-baxua(1).pdf)



Halaber, zenbait emakumek tortura sexuala pairatu dutela salatu izan dute. Era askotako bortxaketak eman izan dira polizia etxeetan. Izan ere, bortxaketa sexuala Euskal Herriko ezker independentistaren mugimendua eta haren aldeko borroka neutralizatzeko tresna politiko-polizial ezaguna izan da.¹⁴

Azken urteotan Europako Giza Eskubideen Auzitegia Estatu espainolaren kontra posizionatu bada ere, eta tortura salaketak ikertzeko jada zenbait ebazpen badaude ere, polizia etxeetan edota espetxe sistemaren baitan ematen diren tortura eta tratu txarren zigorgabetasuna handia da. Lege esparrua (printzipioz bermatzailea dena) ez-nahikoa da, ez baititu saihestu, ezta ikertu, ezta zigortu ere orain arte emandako milaka kasuak.

Bestalde, torturaren aurkako marko politiko, akademiko eta sozialean genero ikuspegiaren gabezia nabaria izan da. Amnesty Internationalen aburuz, gizonak pairaturiko egoerak ikertu dira eta genero perspektibatik ez da azterketarik egin ezta gorputzen espezifikotasuna landu ere.

Zentzu horretan, aipatzeko da genero indarkeriaren egungo lege ezberdinetan, indarkeria moten definizioa zabaldu bada ere (ez soilik eremu pribatuan paira daitekeena), ez dela tortura sexistaren errealitatea jasotzen.

ESPETXE SISTEMA MANTENTZEKO GAKOAK ETA BITARTEKOAK

Nola da posible egoera ez lehertzea? Aipaturiko hamaika zapalketa eta bazterketen aurrean presoak ez dira matxinatzen? Guri behintzat, behin eta berriz datozkigu burura horrelako galderak...

Espetxe sistemaren botere harremanak eta deskribaturiko egitura mantentzeko, zenbait aldagai daude oso presente, mendeku makina hau etengabe olioztatzen dutenak.

Elementu asko azpimarragarriak dira eta aurreko atalean zenbait aipatu izan ditugu jada. Jarraian, espetxeetako egoera gordina iraunarazten eta hau eman dadin ahalbideratzen duten hainbat elementu.

Lehenik eta behin, espetxe politikaren logika edota filosofia bera azpimarratu nahi dugu, “zapaldua dena, zapaltzailea bilakatzea”ren ideia maiz nagusitzen baita.

Hau da, espetxe onurak lortzeko trukean, beste presoek gaineko informazioa ematea eskatu izan da. Eta beraz, lehen aipaturiko kartzeleroa/presoaren arteko botere abusuak edota botere harremanak birproduzitzeko joera egon daiteke presoek artean.

Horretaz gain, zapalkuntzaren kontzientziarik eza nabarmena da. Eta, feministok ongi dakigun bezala, pairatzen dugun edozein zapalkuntzari aurre egiteko, kontzientzia izatea oinarritzko elementua da. Eta zoritxarrez, presoek artean preso kontzientzia ez dago beti presente.

Espetxe sistemak, preso kontzientzia piztu ez dadin, goxoki asko eskaintzen du. Nolabaiteko faboreak edota sariak eskaini ditzake egoera ez eraldatzeko. Eta presoari espetxearentzat inportantea dela sentiaraztea praktika ohikoa da. Horretarako, zenbait ardura eta eginkizun (batzuetan balio gabekoak direnak) eskaintzen zaizkio presoari. Esate baterako, patioa garbitzeko ardura, espetxeko azpiegitura jakin bat kontrolatzea, moduluko arduraduna bilakatzea...

Arestian aipatu bezala, presoek kontrako mehatxuak, erasoak eta bortxa sistematikoa dela esan daiteke. Eta bereziki, matxinatu edota botere harremanen aurrean oldartzen diren presoek kontra erabiltzen da. Hau da, otzan jarrera duenak edota egon daitezkeen beste presoek kontrako erasoek

aurrean ez ikusiarena egiten dutenek espetxearen aldetik zigorrak edota erasoak pairatzeko arrisku gutxiago izango dute.

Abusu egoeren aurrean posizionatzen badira, ordea, mehatxuak eta indarkeria mota ezberdinak pairatzeko arrisku handia izango dituzte.

Gainera, aipatu bezala, indarkeria instituzional honen aurrean sekulako inpunitatea dago. Eta horrek asko zailtzen du egoera eraldatzea.

Bestalde, etengabeko medikalizazioa dago. Espetxeetan psikofarmakoen erabilpena neurrigabekoa da eta, bereziki, emakume moduluetan. Arrazoi ezberdinak egon daitezke, baina Cruells eta Torrens-en (2004) ikerketaren arabera, hiru elementu dira azpimarragarriak. Alde batetik, espetxeetako osasun langileen gabeziaren isla da. Beste aldetik, presoek kontrol mekanismo gisa erabiltzen da. Azkenik, eta genero ikuspegi kritiko batetik aztertuta, patriarkatuak ezarritako genero estereotipoak aipatu behar dira, emakumeak histerikoak eta sentiberagoak direla eta gaixotasun mentalak izateko joera handiagoa dutela uste izatera bultzatzen dutenak.

Horretaz gain, emakume presoak egoera honen kontra ez oldartzeko beste elementu bat dago, adreilu motxila bezalakoa bilakatzen dena. Lehen aipatu bezala, emakume presoek zuzendutako berezko zigor moralak pairatzen dute eta emakume askori ondorio psikologiko nabarmenak eragiten dizkie. Espetxe sistemak emakumea bekatari eta errudun sentiarazteko etengabeko ahalegina egingo du.

Halaber, Angela Davisek salatzen duen industria-gune ("complejo industrial carcelario") bilakatzen ari da espetxe sistema. Espetxeratzea zenbait multinazional, enpresa eta korporazio ezberdinentzat oso errentagarria da. Langile trafikorako eta ia doako eskulana lortzeko eremu ezin hobea bilakatzen ari dira espetxeak ¹⁵.

Azkenik, espetxe barruan gertatzen dena ezagutzea eta ezagutaraztea funtsezkoa da. Eta espetxe sistemak "sarrera ukatzeko eskubidea" ("derecho de admisión" delakoa) kontrolatzen duen heinean, barruko egoera ezagutaraztea izugarri zailtzen da. Giza eskubideen urraketa eta espetxeen irregularitateak salatzeke helburua duen erakundeei espetxeetara sartzeko debekua ezarri ohi zaie.

AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

(...) Zigor anizkoitza, salbuespen neurriak, masifikazioa, dispertsioa, jarduera murriztuak eta estereotipatuak, infantilizazioa, osasun arreta eskasa, misoginia, desberdintasun punitiboa, zigor moralak, bekatua eta erruduntasunaren zama, estigmatizazio soziala, biktimizazioa, bazterketa, bakartze soziala, isolamendua, bortxa, umiliazioak, botere abusu sexistak, mehatxuak, emakumearen gorputzaren erabilpena, tortura sexista, inpunitatea, ikusezinak, abandonatuak, suizidioak, zapalkuntzaren kontzientziarik eza, medikalizazioa (...)

Ikuspegi feminista batetik aztertu ditugu espetxe sistemaren ezaugarriak eta hura iraunarazteko funtsezko faktoreak. Eta elementu asko atera dira, norberak nahi adina ondorio ateratzeko. Sarreran aipatu bezala, txosten honek nolabaiteko abiapuntua eta gogoeta egiteko bitartekoa izan nahi du

¹⁵ Cárcel y exclusión. Pedro José Cabrera Cabrera (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren aldizkaria, 2000) eta http://elpais.com/diario/2000/03/29/espana/954280840_850215.html



eta, beraz, hausnarketan eta praktika feministan sakontzen dugun heinean ondorio zehatzagoak eta borobilagoak ateratzea espero dugu. Halere, gaurkoan zenbait gako azpimarratu nahi ditugu, baita hainbat ideia luzatu ere aurrera begira jorrazteko.

Emakume presoak zapalduen azpian zapalduago dauden kolektiboa dira. Eta biktimizazioan sakondu baino, uste dugu haien egoeren jabe diren eta horrekin identitate anitzak osatzen dituzten pertsona moduan ulertu behar direla.

Espetxe sistemaren benetako funtzioak agerian utzi eta salatu behar dira. Besteak beste, estatuen pobrezia arazoa estaltzeko, migrazio fluxuak kontrolatzeko, bazterketa soziala eta botere harreman heteropatriarkalak iraunarazteko...

Zentzu horretan, espetxeetan ematen diren errealitateek arazo kolektiboa osatzen dutela uste dugu. Errealitate hori eraldatzea ez dagokie emakume presoek, baizik eta jendarte osoari. Erakundeak, Mugimendu Feminista, instituzioak, herri mugimendua, alderdiak, eragile sozialak, sindikalak... norberaren funtzio eta eginkizunen arabera, espetheen errealitate gordina salatu eta honekin bukatzeko konpromisoak hartu (eta bete) behar direla uste dugu. Ez ikusiarena egitea onartezina da. Espetxe politika krudelaren ondorioak agenda feministan, politikoan, akademikoan eta instituzionalean txertatu behar dira.

Euskal presoak etxera!! ozen aldarrikatzen dugu. Euskal Herriko gatazka politiko armatuaren konponbidean Bilgune Feministak feminismotik eragitea hartu zuen konpromisoa eta horretan saiatzen ari gara. Norabide horretan, dispertsio politika salatzea eta euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea exijitzen jarraituko dugu. Espetxeetako egoera hauek salatzeaz gain, barruan daudenei elkartasuna eta konpromisoa adieraztea beharrezkoa da, eta lau horma horiek apurtzen jarraitzen dugun bitartean, gutunek eta informazioa, material feminista, argazkiak, irudiak... bidaltzeak arrakala txikiak sortzen dituzte. Presoekiko harremanak elikatzea, elkartasun keinua izateaz gain, isolamendua eta bakartze sozialarekin apurtzeko ekintza bat ere bada bere horretan.

Espetxeak apurtu!! Jendartearen ahul, estigmatizatu eta erasotzen errazak diren sektoreak kriminalizatzen eta jazartzen ari da. Hori dela eta, presoak espetxeetatik ateratzeko norabidean neurriak hartu eta gaurdanik bestelako zigor politika bat ezartzea funtsezkoa da. Egungo espetxe sistemaren antzutasuna eta porrota gero eta nabarmenagoa da eta, horregatik, espetxe zigorrak ordezkatzeko politika berriak ezarri behar direla uste dugu.

Sistema punitiboaren inguruko gogoeta feministan sakondu behar da. Espetxe sistema (hau da, zigor sistema) ez da indarkeria sexista ekiditen ari, baizik eta iraunarazten ere ari da. Izan ere, nola espetxe sistema hala indarkeria sexista sistema heteropatriarkalaren logika berdinetan oinarritzen dira eta hura mantentzeko funtzioa daukate. Baina zer egin orduan erasotzaileekin, bortxatzaileekin, pederastekin? Zer-nolako justizia mota nahi dugu feministok? Zenbait urrats eman badira ere, eta gaiaren orokortasuna eta izaera integrala kontuan izanik, eztabaidaren erdigunean kokatu behar da edo galdera hauek mahai gainean jartzen behintzat hasi behar dugula uste dugu.

2016ko abenduan.

bibliografia

Dolores Juliano (2011). Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino.

Dolores Juliano (2009). Delito y pecado. La transgresión en femenino.

Estibaliz de Miguel Calvo (2014). Encarcelamiento de mujeres. El castigo penitenciario de la exclusión social y la desigualdad de género.

Estibaliz de Miguel Calvo (2014). El encierro carcelario. Impacto en las emociones y los cuerpos de las mujeres presas.

Oihana Echevarrieta Legrand (2013). Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian, askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak. Masterreko ikerketa-lana.

Cruells eta Igareda (2005). Mujeres, Integración y Prisión. Ikerketa-proiektu europarra.

SARE (2016). *Euskal emakume presoak. Egoera.*

Pedro José Cabrera Cabrera (2000). Cárcel y exclusión. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren aldizkaria.

María Naredo Molero. *Qué nos enseñan las nuevas reclusas? La criminalización de la pobreza desde la situación de reclusas extranjeras y Gitanas.*

ENCARCELADAS dosierra. Emakume Internazionalistak, 2010.
http://www.feministas.org/IMG/pdf/dossier_encarceladas_5_.pdf

Emakume preso politiko ohi ezberdinen parte hartzea eta testigantzak.

<http://www.institucionpenitenciaria.es/>

<http://www.justice.gouv.fr/>

<https://www.vice.com/es/article/el-sexo-en-las-carceles-espanolas-459>

<http://redmujeresycarceles.blogspot.com.es/>

www.etxerat.eus

http://bilgunefeminista.eus/eu/Artxibategia/Arantza_Zulueta_SOS_euskaraz

http://www.berria.eus/albisteak/130151/emakume_preso_ohien_manifestua_hemen_gaude.html

<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/ocho-condenas-del-tribunal-europeo-de-derechos-humanos-evidencian-que-la-investigacion-de-torturas/>

http://www.eldiario.es/contrapoder/mujeres-abusos-prision_6_360523947.html

http://elpais.com/elpais/2010/04/23/actualidad/1272010637_850215.html

http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/07/30/valencia/1406746288_243009.html

http://elpais.com/diario/2000/03/29/espana/954280840_850215.html



HEMEN GAUDE

“Kalera, kalera” ekimenaren baitan emakume preso ohiek kaleratutako manifestua

Hemen gaude egun batez EHaren independentzia eta gizarte justuago bat helburu, borrokan hasi ginen emakumeak.

Hemen gaude gure borroka esparruetan ikustezinak sentitu ginenak eta, baita, ikustezinak ez izateko ahotsa altxatzea eguneroko zerbaite bilakatu genuenak ere.

Estatuentzat, ordea, ez ginen inoiz ikustezinak izan eta, hala, egun batean atxilotuak izan ginen. Ez, poliziak ez zuen inoiz begibistatik galdu emakumeak ginela. Eta, hemen gaude, ondorioz, komisaldegian bortxatuak izan ginen emakumeak, baita bortxatuak izateko izuaren ondorioz, oraindik ere laguntza profesionala jasotzen dugunak ere. Bortxaketa sexuala herri honen askatasunaren aldeko borroka neutralizatzeko guda-arma bat izan baita.

Muturreko egoera hari bakoitzak ahal izan duen moduan egin genion aurre. Eta ondorioz, hemen gaude, laguna salatu gabe duinki eutsi genionak baina, baita, duintasuna galdu gabe, behartu zigutena sinatu genuenok ere. Zeren eta, agian, 50 urte geroago, bada garaia Itziarren semeak ezezik alabak ere izan zituela aitortzeko. Agian, bada garaia, premia eta min pertsonalak ahultasun bezala baino, aurre egin beharreko arazo kolektibo bezala ulertzeko; kartzela zein kartzelatik kanpo. Horrek bereizten baikaitu beraien logikatik. Gu ez baikara beraiek bezalakoak.

Eta, hemen gaude kartzelara sartu gintuztenean bikotekidea galdu genuen emakumeak ere. Egia esan, ez dakigu zein momentutan pasa ahal izan zitzaigun burutik zaintzaile beharrean zainduak izan gitezkeela. Edo, hobeto pentsatuta, gure barruan beti jakin genuen hori gertatuko zela. Eta, hala ere, aurrera egin genuen... Nonbait, borrarroak bakarrik ez, herri honetan ausardiak ere baditu milaka aurpegi.

Hala, geroztik, espetxean hain beharrezkoa den babes emozionala gure amek, ahizpek, neskalagunek eman ziguten emakumeak gara hemen gaudenak. Nahiz eta honako hau ez den gizon presoengatik ezberdintzen gaituen zerbaite: euskal presoengatik zaintza eta babesa emakumeem esku egon baita beti eta halaxe jarraitzen du egoten gaur egun ere.

Hemen gaude ama izan nahi eta kartzelaren ondorioz izan ez garen emakumeak. Eta hemen gaude ere barrote atzean eta poliziez inguratuta erditu garen emakumeak.

Hemen gaude, seme alabak espetxe barruan, gurekin, hazi ditugun emakumeak, aitarekin haztea ez baita sartzen Instituciones Penitenciariasen buruan. Hemen gaude, hiru urte bete zituzten egunean bertan, eta azala kendu izan baligute bezala, umeak gure ondotik erauzi zizkiguten emakumeak.

Hemen gaude ere, neska bat maitatzeagatik kartzelaren aldetik, eta ez bakarrik bere aldetik, irainak jaso genituen eta jasotzen ditugun emakumeak.

Hemen gaude, emakume izateagatik kartzela erregimen ezberdina bizi izan dugunak. Gizonezkoentzako egindako kartzelako soberakinetan bizi izan garenak. Patio txikiagoetan,

bakartze latzagoetan, baldintza kaxkarragoetan egon garenak. Menpekotasuna areagotzeko asmoz emakume on eta otzan bihurtu nahi izan gaituztenak.

Hemen gaude, funtsean militante independentista izateaz gain, emakume izateagatik komunikabide, komisaldegi eta espetxean modu bikoitzean zigortuak izan garen emakumeak. Hemen gaude prentsa misoginoenen arabera emakume txarrak, ama txarrak. Emakume desegokiak. Komandoetako putak, terrorista odoltsuenak. Hemen gaude modu bikoitzean zigortu gaituen iruditegi horren eraikuntzan erabili izan diren aurpegi eta gorputzak. Hemen gaude aitortu gabeko militante politikoak.

Guk behin pairatu genuena egun 51 euskal emakume preso politiko ari dira pairatzen, eta kezkatuta gaude. Horiatariko 12 bakarrik daude eta Estatu Españoleko kasuan gehienak bizi erregimen gogorrean. Klean behar ditugu, kartzelara eraman dituen gatazka ixteko egoera honi aterabidea eman behar diogu. Gatazka honek eragindako preso eta iheslari gabeko Euskal Herri baterantz abiatu nahi dugu, eta bitartean egun bizi duten salbuespen egoera desegin nahi dugu. Emakumeon kasuan gainera, gatazka honen atzean beste gatazka batzuk ezkututzen dira, emakumeok gizarte patriarkalaren ondorioz bizi dugun gatazka.

Badira bost urte Aieten, nazioarteko eragileen parte hartzearekin, bide orri bat aurkeztu zela; euskal gatazka politikoari irtenbide justu, baketsu eta iraunkor bat bilatu asmoz. ETAK Aieten egindako deialdiari bere ekarpena egin zion, jarduera armatua behin betiko uzteko deliberoa hartu zuelarik. Baina espetxean edo erbestean dauden gure kideentzat egoerak ez du hobera egin. Bost urte beranduago, euskal preso politikoaren auziak konpondu gabe segitzen du.

Gure herrian benetako bakea eta askatasuna eraiki nahi badugu gatazka politiko armatuaren harira izandako ondorioak landu behar ditugu eta emakumeon kasuan "gatazka" horren itzaletan gordetzen diren beste indarkeriak ere landu. Hori GUZTION ardura da. Hori dela eta, kooperazio esparru bat sortu nahi dugu eragile guztiekin. Horregatik, euskal jendarteari orohar eta bereziki emakumeon eskubideen defentsan lanean diharduten eragileei deia luzatu nahi diegu auzi honi behin betiko irtenbide bat bila diezaiozun denon artean.

2016ko ABENDUAK 29/31
EMAKUME PRESO OHIEN ITXIALDIA
USURBIL





www.bilgunefeminista.eus

